ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko urtarrilaren 12a > Astelehena > VII. urtea > 216. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

"Kooperatibismoa egiteko zergati nagusia ez dugu belaunaldi berriei transmititzen jakin izan"

**Andoni Mujika**
Lankiko kidea > 08



**G2a** Ekon: Arrasateko taldearen itzulera > 29

**BERGARA** 'Usondoko zuhaitzak' gida kaleratuko du Udalak > 11

**FUTBOLA** Aloñak penalti eztabaidagarri bati esker irabazi dio UDAri > 21

**KULTURA** Amaia Txintxurreta oñatiarra 'La batalla de los coros' saioan > 31

**ARRASATE** > OSTALARITZA

## Tabernarien eskaintzak harrera ona

Eguenetan euro baten truke ardoa eta tapa jatera, jende asko > 03

**EKONOMIA** > LANGABEZIA

## Iazko urtarriletik abendura artean 789 langabe gehiago ibarrean

INEMek emandako datuen arabera, Arrasate eta Eskoriatza dira langabezia tasarik altuena duten herriak, %10,41 eta %11,35 hurrenez hurren.

Oñatik, berriz, langabezia tasa baxuena dauka: %5,94. Gaur egun 2.775 langabe daude Debagoienean, 2008ko urtarrilean baino 789 gehiago. > 06



**LOKATZA** CDR taldeko Zigor Urain arrasatearrak, gainerako ziklisten moduan, bizikleta sorbaldan hartu behar izan zuen lokatzaren erruz. JOSETXO ARANTZABAL

**ZIKLO-KROSA** > OSINTXUKO PROBA

# Murgoitio eta Gamonal azkarrenak Osintxun

**ELITE MAILA** Biek ala biek irabazi zituzten Osintxuko ibilbide lokaztuan jokatutako probak

**IBARREKOAK** Jone Muxika bigarren sailkatu zen, eta Mikel Aristik kadete mailako txapela jantzi zuen > 22-23

**ELKARTASUNA** > SAHARA

## Elikagaien bilketa eskoletan

Saharara elikagaiak bidaltzeko azken aukerak > 04

**DANBAKA** > MUSIKA

## Talde guztien balorazioa

Epaimahaiak talde guztien gaineko iritzia eman du > 30

**AISIALDIA** > ELURRETAN

## Elurrari etekina atera diote asteburuan debagoiendarrek

Joan den asteko elurrak, aspaldiko partez, Debagoieneko hainbat herri eta mendi zuritu ditu. Estalki zuriak, baina, oso gutxi iraun du gure herrietako kaleetan. Mendietan, berriz, oraindik bada elurrik.

Badago elurra gorrotatzen duenik; izan ere, hainbat eragozpen ere sortzen ditu, baina asko irrikan egoten dira elurretan ibili eta jolasteko: gaztetxoak eta baita nagusiak ere.

Arrazoi horregatik, Arantzazu, Udala, Gorla, Asentzio eta beste gain asko debagoiendarrez bete dira asteburuan. Trineoan ibili, elurra elkarri bota, paisaiaz gozatu... izan dira aukeran. > 12-13



Familia asko elurretan izan dira. J.A.

## AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 03
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-32
**Sailkatuak** > 33-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40



Danbakako kamiseta bat. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera


FINALA
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA
SARRERAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2 > 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3 > ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
KAMISETAK //
SALGAI DAUDE:
1> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
2 > 943 25 05 05 ZENBAKIAN
KAMISETEN SALNEURRIA: 1> 12 EURO 2 > 22 EURO 3 > 30 EURO
INFORMAZIO GEHIAGORAKO WWW.DANBAKA.COM
urtarrilak
16
EGUBAKOITZA
22:30
ADI HOLDEN
BERGARA
THE WET BAND
MUTRIKU
NORMAN
EIBAR / ONDARROA
TALDE GONBIDATUA
PETTI & BANDA ELEKTRIKOA
LEHIAKETATIK KANPO
ETORRI KONTZERTURA ETA IRABAZ EZAZU SNOW OHOLA!
Emanaldiaren amaieran ezagutaraziko dira Danbaka lehiaketako irabazlea, Debagoieneko onena eta ikusleak aukeratutako talderik onena.
BABESLE NAGUSIA
LAGUNTZAILEA
ANTOLATZAILEAK

**ARRASATE** > ESKAINTZA TABERNETAN

# Ardoa eta tapa euro baten truke emateak harrera oso ona izan du

**ARRASATE** Zazpi taberna daude egitasmoan: Hilarion, Amets, Lora, Dublin, Txoko, Hotel Mondragon eta Monte

**HIRU ORDU** Urtarrileko eta otsaileko eguenetan, 18:00etatik 21:00etara egingo dute eskaintza

**ARDOA** Alkorta etxeko kriantza ardoa da tabernariek urtarrilean zerbitzatzeko aukeratu duten edatekoa

**GIROA** Herrian iluntzetan kaleko giroa bultzatzea da helburua, ez soilik txikiteoa berpiztea

**IRATI AGIRREAZALDEGI/MIREN ARREGI** >
ARRASATE

Jatekoak edana behar du esaeraren arabera, baita alderantziz edanak jatekoa askoren ustez. Tabernara joan eta tragoarekin batera zeinek ez du pintxo bat noiz edo noiz jaten? Bada, badirudi iluntzetan taberna batetik bestera trago bat edo beste hartzeko joera jaitsi egin dela eta horri aurre egin asmoz Arrasateko hainbat tabernarik egitasmo bat ipini dute abian: ardoa eta tapa euro baten truke.

Bada, lehenengo eskaintzaeguena pasa da eta ekimenean esku hartu duten hainbat tabernarik jakiranazi dutenez, harrera "aurreikusitakoa baino hobea izan da, oso ona". Hori azaldu dute, eguen arratsean tabernetan bildutako jendea eta giroa ezohikoak izan zirelako.

"Helburua ez da txikiteoa bultzatzea, herrian giro apur bat sortzea eta jendea animatzea kalera irtetera baizik. Krisi garaian jendeak beldurra du. Egitea erabaki duguna da urtarrileko eta otsaileko eguenetan, 18:00etatik 21:00etara kriantza ardo bat eta tapa bat euro baten truke eskaini hainbat tabernatan. Egitasmoak hala funtzionatzen jarraitzen badu, berdin jarraituko dugu edo beste eskaintza bat egin", esan digu Monte tabernako Juan Carlos Davilak.



Monte tabernan (argazkian), esaterako, eguenean, kroketa eta kriantza ardoa izan zuten eskaintzan. JOSETXO ARANTZABAL

**KRIANTZA ARDOA**

Eskaintzaren barruan ardo konkretu bat eskainiko dute. "Alkorta etxeko kriantza ardoa izango da urtarrilean eta datorren hilabeterako oraindik ez dugu erabaki mantenduko dugun edo aldatu egingo dugun", esan digu Juan Carlos Davilak.

Jatekoa, berriz, taberna bakoitzak aukeratu beharko du. "Gurean, esaterako, lehen eguenean urdaiazpiko kroketa ipini dugu eta hurrengoan urdaiazpikoa mozten aditua den pertsona bat ekarriko dugu tabernara urdaiazpiko tapa bezeroei eskaintzeko", dio Davilak.

Txoko tabernan lehen astean txistorra eskaini zuten eta, "hurrengoan aldatuko da seguru aski baina ez dugu erabaki", dio Jose Inazio Altunak.

**BESTE ESKAINTZA BATZUK**

Urtarrilaren 8an, eguena, ipini zuten abian eskaintza, oraingoz, Hilarion, Amets, Lora, Dublin, Txoko, Hotel Mondragon eta Monte tabernetan. "Deia taberna guztietara zabaldu dugu eta beste tabernaren batek ekimenarekin bat egin nahi badu gurekin harremanetan jar daiteke", azaldu digu Juan Carlos Davilak.

Izan da ideia asko gustatu ez asmoarekin bat egin ez duen tabernaririk ere. Itzala tabernako *Poti*-ren esanetan, "ez zitzaigun ideia ona iruditu bezero asko diskriminatzen delako eskaintza ardoarekin bakarrik eginez, are gehiago ez zaio aukera ematen ardoa aukeratzeko". Hala ere, erabaki dute bestelako eskaintzak egitea. "Eguenean, esaterako, edari guztietan %20ko deskontua egin genuen eta erabaki gabe dugun arren baditugu ideiak hurrengoetarako: tapa doan ematea, opariak… izan daitezke aukerak".

Eskaintza abian da eta tabernarien esanetan erantzun ezinhobea izan du gainera, eta aurrerantzean ere bueltatuko omen dira. Hortaz, on egin diezaiela janak eta kalterik ez edanak.



**Juan Carlos Davila**
Tabernaria

"Arrasaten astegunetan kalera irten eta ez dago girorik. Hori izan da, hain zuzen ere, egitasmoa abian ipintzeko arrazoietariko bat: herriari bizitza apur bat ematea. Lehenengo egunean oso erantzun ona izan du eskaintzak. Hiletaren bat edo gertaera bereziren bat ez bada ez da eguenetan jende askorik ibiltzen eta eguen honetan jende mordoa gerturatu zen gure tabernara, hortaz, oso pozik gaude arrakasta izan duelako egitasmoak".



**Blanca Romeo**
Bezeroa

"Zinemara joan aurretik ohitura daukagu zerbait hartzera etortzeko tabernara. Euro baten truke ardoa eta taparena moduko egitasmoak abian ipini baino, uste dut herriko tabernariek egin behar luketena dela ardoaren, pintxoen eta kafearen prezioak oro har jaitsi. Neurri hori hartuko balute uste dut bezero guztiok aterako ginatekeela irabazten eta oraingoa moduko eskaintzekin gutxi batzuek baino ez dute probetxua ateratzen".



**Aitor Iturriga**
Bezeroa

"Gu etortzen gara tabernara, baina eskaintzarekin gogoratu eta propio etorri gara oraingoan. Oso idea ona iruditzen zait tabernariek izan dutena. Bazegoen herriko giroa apur bat pizteko beharra. Normalean jende gutxi ibiltzen da eta eguena da beharbada jende apur bat gehiago ibiltzen den asteko eguna, hortaz, egun aproposa izan daiteke horrelako ekimen baterako. Benetan ideia polita da eta tabernariak zoriondu nahi nituzke horregatik".

**ZERBITZUAK** > ZABORRAREN KUDEAKETA

# Gipuzkoako Hondakin Kontsortzioa arduratuko da zaborra kudeatzeaz

Mankomunitatea bera arduratzen da gaur egun zaborra batu eta Sasietako zabortegira bidaltzeaz; uztailetik aurrera zaborra batu egingo du bakarrik



Uztailetik aurrera Mankomunitateak zaborraren tasa igo egingo du. J.A.

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Debagoieneko Mankomunitatean zaborraren kudeaketa da baliabide gehien eskatzen duena. Mankomunitatearen kontraturik handiena da.

Zaborraren kudeaketan bi atal bereizi behar dira: alta eta baja. Azken honek esan nahi du zaborra batzearen zeregina; eta zaborraren alta, bestetik, litzateke bildutako zabor hori kudeatzeko ardura, hau da, zabor hori nora eraman eta ze tratamendu eman erabakitzea.

Debagoieneko Mankomunitatea bi kudeaketa horietaz arduratzen da gaur egun. Hau da, berak batzen du herrietan zaborra eta bera arduratzen da Sasietako zabortegira eroateaz. Baina hori aldatu egingo da aurten. Uztailaren 17tik aurrera Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa arduratuko da zaborraren alta kudeatzeaz Gipuzkoa osoan. Hor sartuko dira, beraz, transferentzia, garraioa, errauskailua, konpostaje plantak, zepak tratatzeko planta eta biolehorketa planta.

Instalakuntza edo planta horiek guztiak egin gabe daude oraindik. Beraz, horiek egin arte Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak zabortegietara eroango ditu hondakinak. Uztailetik aurrera, baina, Gipuzkoako Mankomunitateek zerga bereziak ordaindu beharko dizkiote kontsortzioari instalakuntza horiek egiteko. Hori horrela, udalek zaborraren tasa igo egin beharko dute.

Debagoieneko Mankomunitateak erabaki du oraingoz zaborraren tasa %10 igotzea. Horixe baita Sasietako zabortegiak igo diena. Uztailean, baina, aurreikusi bezala, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa zaborraren altaz arduratzen hasiko balitz zaborraren tasa %24 igoko litzateke bigarren seihilekoan.

Mankomunitateak azaldu du zaborraren arazoa oso larria dela eta irtenbidea topatzeko bide desberdinak aztertzen ari direla. Zabor gutxiago sortzea lortu nahi da eta baita gehiago birziklatzea.

DATUA

**%24**

**IGOKO DA ZABORRAREN TASA**

**Uztailetik aurrera Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak kudeatuko du zaborraren alta. Horretarako beharrezkoak diren instalakuntzak egiteko zerga bereziak kobratuko dizkie Mankomunitateei.**

**SAHARA** > 'ITXAROPENA PIZTU' KANPAINA

## Saharara elikagaiak bidaltzeko azken aukera

Sahararen aldeko elkarteek elikagaiak bilduko dituzte eskoletan asteon

**ARRITXU BARRUSO** > ARRASATE

Urtero moduan, aurten ere, Saharar Herriarekiko Elkartasunerako Euskal Elkarteek materiala bildu eta Saharara bidaliko dute, Tindoufeko errefuxiatuen kanpalekura.

Hori horrela, gure ibarreko Nubi (Arrasate), Iesbaa (Aretxabaleta) eta Bubisher (Bergara) elkarteak buru-belarri ari dira lanean materiala biltzen. *Itxaropena piztu* da kanpainaren izena eta aurtengoa bosgarren edizioa da.

Orain arte supermerkatuetan batu dute materiala, produktu jakin batzuek batu nahi izaten dituzten, kanpalekuan gehien behar izaten dituztenak: hegaluzea oliotan, arroza, pasta, azukrea, dilistak eta konpresak, hain justu ere. Oraingoz, pozik daude lortutako materialarekin baina elkarte horiek ere sumatu dute krisiaren eragina. "Oraindik ez dugu batutako material guztia kontatu, baina, hasiera batean behintzat badirudi aurreko urteetan baino gutxiago batu dugula. Uste dut krisiak eragin zuzena izan duela horretan", azaldu du Olaia Sagredo Iesbaa elkarteko kideak.

**ESKOLETAN ERE BAI**

Baina kanpaina ez da supermerkatuetan bukatzen. Hain zuzen ere, aste honetan ibarreko ikastetxeetan jasoko dute Saharara bidaltzeko materiala. "Ikastetxeetara eskutitz bat bidaltzen dugu gure proiektuaren berri emanez eta ikastetxeek, gero, ikasle bakoitzarekin gutun bat bidaltzen dute etxera. Sarreretan kaxak ipintzen dira eta ikasleek materiala uzten dute kaxa horietan", dio Sagredok.

Ibarrean batutako material guztia Arrasaten daukaten lokalean batuko dute eta otsailaren 7an etorriko da kamioia itxaropen hori guztia Saharara bidaltzeko.



Iesbaa elkarteko Olaia Sagredo Arrasateko biltegian. IRATI GOITIA

**POLITIKA** > LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

# Otsailaren 19ra arte zabalik dago posta bidez botoa emateko epea

2009ko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako egutegia abian da; hauteskunde kanpaina otsailaren 13tik 27ra bitartean egingo da

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Urtea hastearekin batera Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak iragarri zuen martxoaren lehenengo egunean izango direla Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Hautagai batzuen izenak ezagutzera eman dituzten arren, alderdiek urtarrilaren 26a baino lehen aurkeztu beharko dituzte behin betiko hautagaiak.

Horren ostean, hauteskunde kanpainaren txanda izango da; otsailaren 13tik 27ra bitartean izango da hori. Baina botoa posta bidez eman nahi dutenek kanpaina amaitu baino lehen egin beharko dute. Otsailaren 19an bukatzen da-eta botoa posta bidez eskatzeko epea. Atzerrian bizi direnek, berriz, otsailaren 28a baino lehen bidali beharko dute botoa, gutun ziurtatu bidez, hauteskunde batzordera.

Martxoaren 6an emango dira ezagutzera hauteskundeen behin betiko emaitzak.

### Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak

**Urtarrilak 21**
Hautagaiak aurkezteko epea zabalik.

**Urtarrilak 26**
Hautagaiak aurkezteko epea bukatu.

**Otsailak 2**
Hautagaiak izendatuko dira.

**Otsailak 13**
Hauteskunde kanpainaren hasiera.

**Otsailak 19**
Posta bidezko botoa eskatzeko epea amaitzen da.

**Otsailak 27**
Hauteskunde kanpainaren amaiera.

**Martxoak 1**
Hauteskunde eguna.

**Martxoak 6**
Botoen zenbaketa orokorra.

**OÑATI** > GERTAERAK

# Elorrioko mendizale bat erreskatatu zuten zapatuan Oñatin, Buetraitz mendian

Elorrioko 31 urteko gizonezko bat zaurituta gertatu zen koba baten erorita; Gurutzetako Ospitalera eraman zuten helikopteroan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Elorrioko 31 urteko gizonezko bat zaurituta gertatu zen zapatu goizean Oñatiko Buetraitz mendian (1.321 metro). Goizeko hamarrak aldera, SOS Deiak ohartarazi zuten haren lagunek, Buetraitz mendi inguruetan mendizale bat leize batean erori eta zauritua zegoela esanez. Zaurituatkoaren lagunek jakinarazi zutenez, laguna entzun bai, baina ez zuten ikusten, putzu batera jausia zen-eta.

**PUTZU BATEN ERORITA**

Gauzak horrela, larrialdiei aurre egiteko zuzendaritzak Ertzaintzaren helikoptero bat mobilizatu zuen eta, helikoptero horretan, talde mugikorreko zenbait agente zihoazen erreskate lanak burutzeko. Bertaratu zirenean, zaurituta-ko mendizalea hamar metroko sakonera zuen putzu batean zegoela ikusi zuten. Zauritua atera ostean, salbamendu-taldeak oinez eraman behar izan zuen, lainoa baitzegoen eta helikopteroak ezin zuen istripua gertatu zen lekura hurbildu. Ondorioz, lehenik eta behin Arantzazuko aparkalekura eraman zuten zauritua, oinez. 600 metro inguruko desnibela dago istripua gertatu zen tokitik Arantzazura eta erreskate lanak ez ziren errazak gertatu elurragatik. Hainbat mendizaleren laguntza izan zuten ertzainek erreskate lanetan. Behin Arantzazura helduta, anbulantzia medikalizatua zuten zain.

**GURUTZETAKO OSPITALERA**

Azkoagain futbol zelaira eraman zuten zauritua jarraian eta handik Gurutzetako ospitalera. Ertzaintzako iturriek jakitera eman dutenez, mendizaleak hainbat traumatismo ditu kolpearen ondorioz. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, pronostiko erreserbatua du Elorrioko mendizaleak.

Era berean, Herrizaingo Sailak horrelako jarduerak eguraldi txarra dagoenean burutzeak duen arriskuaz ohartarazten du.



Oñatiko Buetraitz mendia argazkian.

**DEBAGOIENA** > ARGITALPEN BERRIA

## 'Debarroko atlasa': bailarako herrien argazkiak, mapak eta historia jaso dute

Bailararen bilakaera eta gaur egun duen aberastasuna islatzea izan da argitaratzaileen helburuetako bat



Oñatiko Unibertsitatea.

**E.M.** > BERGARA

Nondik argitaletxeak, Oñatiko Ulma enpresaren babesarekin, *Debarroko atlasa* izenburuko liburua argitaratu du. Deba ibaiak zeharkatzen dituen herri guztien gaineko informazioa dakar aipatutako lanak. Hain zuzen ere, Leintz Gatzagatik hasi eta Mutrikura bitartean dauden herrien inguruko xehetasunak jaso dituzte; besteak beste, azalera, elizateak, toponimia, biztanleria eta historiari buruzko aipamenak. Guztira 16 herri azaltzen dira eta bakoitzari fitxa deskriptibo bana eskaini diote.

**ARGAZKIAK ETA MAPAK**

Liburuak 176 orrialde dauzka eta mapa (tematikoak zein historikoak) eta argazki ugari datoz , guztiak koloretan. Airetik ateratako argazkiak ere badaude tartean. Herri bakoitzeko tokirik esanguratsuenak azaltzen dira *Debarroko atlas* liburuan. Bailarak izan duen bilakaera eta gaur egun duen aberastasuna islatzea izan da argitaratzaileen helburuetako bat.

Sarrera Fermin Etxegoien kazetari oñatiarrak egin du eta horrez gain, Edorta Romanek, Javi Castrok, Patxi Galek eta Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak ere hartu dute parte. Liburua 24 eurotan jarri dute salgai eta ohiko lekuetan eskura daiteke.




Liburuaren azala.

**etxeko leihotik**



**Usoa Agirre** > uagirre@goiena.com

## Kunt garaian, aldapa ona

Ikearen beherapenetako iragarkiari esker jakin dut Suedian Kunt izena duela Gabonen osteak. Izen horrekin ospatzen dute Gabonak bukatu direla eta argi orduak gehitzen hasi direla. Guk, ordea, esanahi ezkorragoa ematen diogu garai honi *urtarrileko aldapa* izenarekin. Izan ere, garai gogorra da urtarrila. Oporren ostean lanera itzulera, Gabonetan diru guztiak xahutu ondoren sosik ez poltsikoan, beherapen garaia eta ezin ezer erosi... Krisi kontua dela eta, ditugun diru apur guztiak ere gorde egin beharko ditugu, zer etorriko zaigun ez dakigu-eta oraindik.

Aurten, baina, oztopo handi batekin hasi dugu aldapa: elurra. Gozatzeko elementua da askorentzat, baina errepidean ibili behar duenarentzat oztopo galanta bihurtzen da. Galdetu bestela gipuzkoarrei zertzuk pasa zituzten egunean. Gurean eguaztenean izan genituen arazo handienak eta eguena nahiko lasaia izan zen, baina irratian behin eta berriz entzun nuen hau: "Gipuzkoan ez hartu autoa behar-beharrezkoa ez bada". Egia esan, Herrizaingo Sailetik mezu hori entzunda beldurtu ere egin nintzen, baina berehala konturatu nintzen ez zela guretzako mezua. Hurrengoan, mesedez, abisatu iezaguzue zertaz ari zareten Gipuzkoa diozuenean, sustorik ez hartzeko.

**"Gabonetan diru guztiak xahutu ondoren sosik ez poltsikoan"**

**> Elurra.** **Irudi ederrak utzi dizkigu, betiko moduan. Mendiak zuri-zuri, kaleko zenbait txoko ere bai, umeak elurretan jolasten... Urtarrileko aldaparen miseriak estaliko al zituen manta zuriak?**

**> Pinuak.** **Urtarrila izaten da Gabonetako apaingarriak kentzeko garaia ere. Hortaz konturatu naiz pinuak zakarrontzietan ikusi ditudanean. Zerbait aurreratu genuela uste nuen; baina, ez, atzeraka goaz.**

> GIZARTEA

### Odol ateraldiak egingo dituzte datozen egunotan Arrasateko Osasun Zentroan, Oñatin eta Bergaran

Arrasateko Osasun Zentroan odol ateraldiak egingo dituzte datozen egunotan. Ohikoa denez, Arabako Odol Emaileen Elkarteko kideak etorriko dira Arrasatera. Ondorengo egunetan izango dira ateraldiak: bihar eta etzi, urtarrilak 13an eta 14an, eta hilaren 20an, 21ean, 28an eta 29an. Esan bezala, Osasun Zentroan dute hitzordua odol emaileek, 16:30etik 20:00etara.

Oñatin, egubakoitzean, hilaren 16an, egingo dute urteko lehen odol ateraldia. Odola emateko interesa dutenak Txantxiku Ikastola joan daitezke, 18:00etatik 20:00etara.

Azkenik, Bergaran, datorren eguaztenerako, hilaren 21erako egin dute deialdia. Seminarioko lokalean izango da odol ateraldia, 18:00etatik 20:30era.

> ARETXABALETA

### Zine Ekologikoa zikloaren hasiera eguaztenean, bi filmekin eta Iñaki Barcena adituarekin

Aretxabaletako Udalak antolatutako Zine Ekologikoa zikloari hasiera emateko, etzi, eguaztena, *Nork nori zor* eta *Plantando carbono cosechamos miseria* filmak eskainiko dituzte Arkupen, 19:00etan. Iñaki Barcena EHUko irakasle eta adituak jardungo du gaiaren inguruan. Urtarrilaren 21ean klima aldaketa izango dute aztergai Carlos Alonso adituarekin eta *Reclain Power* filmarekin.

**LANA** > INEM-EN DATUAK

# Iazko urtarriletik abendura, 789 langabe gehiago ibarrean

Gaur egun 2.775 langabe daude Debagoienean; abenduko langabe tasa %8,95ekoa izan da

Arrasate eta Eskoriatza dira langabe tasarik altuena duten herriak, %10,41 eta %11,35

T. MADINA/E.MENDIBIL > BERGARA

INEMek emandako datuen arabera, %0,85 egin zuen gora langabeziak 2008ko azken hilabetean. Abenduan, azaroan baino 264 langabe gehiago zeuden Debagoienean. Gaur egun 2.775 langabe daude Debagoienean, 2008ko urtarrilean baino 789 gehiago hain justu ere. 2008ko urtarrilean %6,41ekoa zen langabe tasa ibarrean.

Debagoieneko herriei dagokienez, Arrasate eta Eskoriatza dira langabe tasarik altuena duten herriak, %10,41 eta %11,35 hurrenez hurren. Logikoa denez, Arrasaten kontzentratzen da langabe kopuru handiena: 1.204 langabe joan den abenduan, beti ere INEMeko datuen arabera. Oñatik dauka orain langabezia tasarik baxuena: %5,94 (321 langabe hain zuzen). 2008ko urtarrilean Leintz Gatzaga zen langabe gutxien zuena (3, %2,26). Oñatiko kasua are deigarriagoa da ibarreko beste herri handien egoerarekin alderatuta.

Antzuolan, berriz, urtarrilean baino 38 langabe gehiago dituzte (tasa %5,27tik %9,45era igo da) eta Aretxabaletan iazko urtarrilean baino 73 langabe gehiago dituzte orain.

Hego Euskal Herriko datuak ere ez dira batere onak izan abenduan. Hala, 8.687 langabe gehiago zeuden lau probintzietan; Gipuzkoaren kasuan, 1.701

**URTE TXARRA**

Orokorrean, esan daiteke 2008a urte txarra izan zela langabeziari dagokionez. Iazko urte hasiera, 1.986 langabe zeuden Debagoienean; horrek esan nahi du, urte bukaeran 789 langabe gehiago zeudela. Hamabi hilabetetan beraz langabe kopuruak ia %40 egin zuen gora.

Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionez, Gipuzkoak du langabe tasa baxuena, hala ere datu kezkagarriekin: 30.059 langabe, horietatik 16.143 emakumezkoak. Langabe diren 2.626 lagun 25 urtetik beherakoak dira.

### Debagoiena, herriz herri

| HERRIA | URTARRILA 08 | AZAROA 08 | ABENDUA 08 |
|---|---|---|---|
| | LANGABEAK (TASA) | LANGABEAK (TASA) | LANGABEAK (TASA) |
| ANTZUOLA | 48 (%5,27) | 78 (%8,57) | 86 (%9,45) |
| ARETXABALETA | 244 (%7,56) | 290 (%8,99) | 317 (%9,82) |
| ARRASATE | 817 (%7,06) | 1.104 (%9,54) | 1.204 (%10,41) |
| BERGARA | 474 (%6,61) | 531 (%7,40) | 568 (%7,92) |
| ELGETA | 19 (%3,86) | 23 (%4,67) | 32 (%6,50) |
| ESKORIATZA | 149 (%7,17) | 208 (%10) | 236 (%11,35) |
| LEINTZ GATZAGA | 3 (%2,26) | 10 (%7,52) | 11 (%8,27) |
| OÑATI | 232 (%6,41) | 267 (%4,94) | 321 (%5,94) |
| **DEBAGOIENA** | **1.986 (%6,41)** | **2.511 (%8,10)** | **2.775 (%8,95)** |

ITURRIA: INEM.




Arrasate izan da kaltetuenetako bat krisiaren eraginez. GOIENKARIA

**EUSKADIKO KUTXA**

## Krisiaren eraginez zabalkundea gelditu

Euskadiko Kutxa Asturiaseko eta Madrileko zabalkundea geratzeko gertu

E.M. > BERGARA

Euskadiko Kutxa aztertzen dabil Asturiasen eta Madrilen burutu duen zabalkundea geratzea. Azken bi urtetan 16 bulego ireki ditu Euskadiko Kutxak Asturiasen eta beste 13 Madrileko Komunitatean. Egungo krisi ekonomiko eta finantzarioa dago erabakiaren atzetik. Elias Atutxa Euskadiko Kutxako zuzendariaren hitzetan, "ez dugu bulegorik itxiko, baizik eta eszenategi ekonomiko berrira moldatu beharra daukagu". Gaztela Leonen, Errioxan, Aragoin eta Kantabrian azken urteotan zabaldutako bulegoak errentagarri egitea da helburua orain, "gune horiek utzi gabe, emaitzak onak izaten ari dira-eta", Atutxak dioenez.

**BEHERAPENAK** > LEHENENGO ASTEBURUA

## Zapatuan jende ugari ibili zen dendetan mauka bila

A.BARRUSO > BERGARA

Neguko beherapenen lehenengo aste bukaera izan da eta hori sumatu da ibarreko dendetan ere. Zapatu arratsaldean jende ugari ibili zen dendarik denda prezioen beherakada aprobetxatu nahian.

Adituek diote, gainera, aurtengo merkealdiak onak izango direla. Antza denez krisia delaeta jende askok beherapenei itxaron die erosketak egiteko. Krisiaren eraginez baita ere deskontuak, denda askotan, handiagoak izango dira. Ibarrean denda gehienak %20ko eta %30eko deskontuarekin hasi dute kanpaina eta amaierara arte ez dute %50a eskainiko.

Adituek diote, bestetik, EAEn 18 urtetik gorako herritar bakoitzak 102 euro gastatuko dituela beherapenetan.




Deskontu handiak egongo dira aurten beherapenetan. JOSETXO ARANTZABAL

**EHUNGINTZA** > TAVEX KORPORAZIOA

## Luxuzko denim merkatuan oinarritu nahi du Tavexek enpresa hazkundea

Balio erantsiko oihalei esker denim sektoreko lidergoari eutsi nahi dio

E.M. > BERGARA

Tavex Korporazioak luxuzko denim merkatuan oinarritu nahi du enpresaren hazkundea datozen urteotan. Hain zuzen ere, balio erantsiko oihalei esker denim sektoreko lidergoari eutsi nahi dio. Helburu horrekin, Ikerketa eta Garapen departamentua politika estrategikoaren ardatza bilakatuko da. Valentziako lantegian dago aipatutako departamentua. Bergaran bi lantoki dituzte: Elorregiko tailerra eta San Antonioko bulegoak, Gabiria dorrean.

2007an balio erantsiko oihalen produkziorako 1,6 milioi euro bideratu zituen Tavexek. Luxuzko denim merkatuan, epe ertainera, %10eko kuota lortzea da helburua. Besteak beste, Giorgio Armani, Tommy Hilfiger edo Diesel Tavexeko bezeroak dira gaur egun. Amaitutako janzkiak dira haien eskaerietako bat gaur. *Full Package* edo zerbitzu integrala deritzon saila sortu du Tavexek: bezeroak modelagintza aukeratu eta gero, konpainia da produkzioaren arduraduna: jantzigintza, materia primen logistika eta bezeroen zehaztapenei kasu eginez eskaerak betetzea.

**HAMAIKA LANTEGI**

Fabrica de hilos, tejidos y estampados de Bergara 1846an sortu zen; 1901ean, Algodonera de San Antonio bilakatu zen eta 1989an Tavex multinazionala. Tavex Korporazioa 2006an jaio zen, Tavexen eta Brasilgo Santista Textil batuketaren ondorioz. 11 lantegi dituzte Europan, Afrikan eta Amerikan, 390 milioi euro inguruko fakturazioarekin eta 6.000 lagunetik gorako lan taldearekin.

**EKONOMIA**

## LKS-k eta Adipssa mexikarrak hitzarmena

Ingenieritza eta arkitektura talde sendoa eratu nahi dute bi enpresek

A.B. > BERGARA

Mondragon Taldeko LKS enpresak kolaborazio hitzarmena sinatu du Administración y Dirección de Proyectos (Adipssa) ingenieritza enpresa mexikarrarekin.

LKSk hitzarmen horrekin Mexikon eskaintzen dituen zerbitzuak indartu nahi ditu. Era berean, bi enpresek batera, ingeniaritzarekin eta arkitekturarekin lotutako mundu mailako talde sendoa eratu nahi dute. Horretarako, LKSk akzioak erosiko dizkio enpresa mexikarrari.

Adipssak 100 langile baino gehiago ditu Mexikoko hiriburuan, Monterreyn eta Cancunen dituen bulegoetan banatuta, eta erreferentziazko eraikinak egin ditu Mexiko osoan.

auzorik auzo

**ANGIOZAR** > Bergaratik ia bost kilometrora dagoen auzoa, Gipuzkoako mendebaldeko azken herri-gunea da. Bizkaia, Arrasate eta Elgetarekin egiten du muga. Mila Elortza auzo alkatearekin izan gara auzoaz berbetan.



**Mila Elortza** > Auzo alkatea

# "Hain bailara estua izanik AHT bertatik pasatzea oso kaltegarria izango litzateke"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**150 baserri inguru ditu auzoak, eta biztanleria, ostera, 300 lagunen bueltan dago. Auzune ugariz osatutako auzoa da; guztietan ermita bat dago. Gaur egun auzotarren kezka nagusia AHT proiektua da; izan ere, hain bailara estua izanda eragina auzo guztian nabarituko litzatekeela dio Elortzak.**

**AHTren proiektuak kezka eragin du auzotarren artean.**

Azken 20 urteetako kezka izan da herria husten joan dela. Guk auzoa berpiztu gura izan dugu, bertako bizimodua bizi mantentzeko; baina konturatu gara beste proiektu batzuk zituztela bailara honetarako: adibidez, AHT. Trena benetan etorriko balitz eragina nabaria izango litzateke. Auzoaren erditik pasako litzateke trena, eta hain bailara estua izanda zarata izango litzateke arazo handiena. Gainera, ura kanalizatzeko arazoak egongo lirateke.

Eragina auzo guztiarendako izango litzateke, ez bakarrik ondotik pasatzen zaionarendako. Autobideko lanak ezagutu ditugu; eta haren aldean handiagoa izango da AHT.

**Zer beste kezka dituzue Angiozarren?**

Azken 25 urteetan egin ditugun eskariak oraindik hor daude. Nagusia, auzuneak euren artean lotzea da. Adibidez, Goimendik ez dauka lotura zuzenik Angiozarrekin; hara joateko Kanpanzarrera joan behar da, Bizkaiko lurretara. Bi kilometroko tartea dagoen arren 11 kilometro egin behar dira herrira jaisteko.

**Nola daude oinarrizko zerbitzuak Angiozarren?**

Orain dela hiru edo lau urte bonbona handi bat jarri genuen, denentzat gasa izateko. Bestalde, ur sare dena ere konponduta dago; Urkuluko ura jasotzen dugu eta alde horretatik ez dugu arazorik izaten. Goimendi auzunean ez dago Urkuluko ura, han bakoitzak bere biltegia dauka. AHT proiektuaren kezketako bat da trenak uraren ibilbidea hartzen duela Goimendin.

**Auzoko txikienentzat, gainera, eskola eta jangela duzue.**

Gaur egun eskolaz gain, zaintza zerbitzua eta jangela ere badauzkagu. Orain, goizeko 8:00etatik 19:30ak arte egon daiteke umea eskolan. Batez ere auzoan familia ez dutenentzat da egokia zerbitzu hori.

**Auzunez osatuta dago auzoa eta guztietan dago ermita. Hortaz, gaiak ere ugari izango dituzue.**

Ondo pentsatuta daude, bi hilero, gutxi gorabehera jairen bat dago-eta. Jaiak galduta zeuden eta orain 16 urte inguru hasi ginen berpizten. Herri batzarrean antolatzen ditugu jaiak; eta gazteen laguntza izaten dugu.

**Noiz izango dira hurrengo jaiak?**

Partaittiko San Bizentik izango dira, urtarrilaren 25ean. Entzute handia hartu duen jaia da; meza, abereak bedeinkatu eta urteko lehenengo txakolina dastatzen da, ermita inguruan.

IBILBIDEAK

## "Ermiten ibilbidea Done Jakue bidearen zonaldea dela diote"

Aldai Egiatik sartuta, San Kristobal ermitatik ermiten ibilbidea egiteko aukera dago. Adituek esaten dute Done Jakue bidearen zonaldea dela; hori uste da, bertan dauden ermita eta santuengatik. "Ez dira hemengo ohiko santuak; horregatik uste da hau paso bide bat zela eta bere garaian ermita horiek denak egin zirela", dio Elortzak. Auzune guztiek dute bere ermita, modu horretan Angiozar guztiari buelta eman ahal zaio.

Errotaren ibilbidea ere badago, baina gaur egun bakarra dago martxan eta AHT egingo balitz bota egingo lukete.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urtarrileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
40 euro abendura arte

SARRERAK
BRUESA GBC- IURBENTIA BILBAO BASKET
BRUESA GBC- CAJASOL
Bidali AG BRUESAIURBEN 5533 zkra
Bidali AG BRUESACAJA 5533 zkra

UMEENTZAKO LIBURUAK
Pamiela argitaletxearen umeentzako liburuak.
Bidali AG LIBURUAK 5533 zkra


ZIRA
EKFB Euskal Selekzioko zira bat.
Bidali AG ZIRA 5533 zkra


KAMISETA
DANBAKA
Danbakako kamiseta bat.
Bidali AG KAMISETA 5533 zkra


SARI NAGUSIA:
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT

www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Mondragon Unibertsitateak eta Gipuzkoako Diputazioak Debagoienean hezkuntza, kultura eta politika publikoen arloetan kooperatibismoa zabaltzeko hitzarmena sinatu zuten abenduaren 29an. Egitasmoaren aurrekontua 2008-2009 urtetan 210.000 eurokoa da, eta 2008 ekitaldian Diputazioak 50.000 euroko ekarpena egin du proiekturako.

**Andoni Mujika** > Huheziko Lanki ikertegiko kidea

# "Kooperatibismoa egiteko zergati nagusia ez dugu zaindu azkenaldian"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatearen barruan kokatzen den Lanki ikertegiaren egitekoa zera izan da: errealitate kooperatiboa eta auto-eraketa diziplina anitzetatik ikertzea, eta hortik kooperatibei gogoeta eta formazio zerbitzua eskaintzea. Diputazioarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, garapen komunitarioaren kontzeptu integralak XXI. mendean dituen aukerak eta potentzialak aztertuko dituzte. Andoni Mujika Lanki ikertegiko kidearekin izan gara.**



Durangarra sortzez, aspaldian Arrasaten bizi da Andoni Mujika. Argazkian, atzo, Monterronen ateratako argazkian. JOSETXO ARANTZABAL

**Zer suposatzen du Diputazioarekin sinatutako ikerketa hitzarmenak?**

Gaur egun, Europa osoan eta baita herrialde anglosaxoietan ere (AEBetan adibidez), garatze lokalaren edo eskualdetako garatzearen ideia indarrean dago eta Diputazioak ere badauka intuizio bat horren inguruan. Lurralde bat antolatzeko, egituratzeko, eskualdeen garatzea funtsezkoa da. Auto-eraketan oinarritutako esperientziak izan dira gure ikerketaren ardatzetako bat azken hamar urteotan, horren atzean dagoen motibazioa, izaera, gogoa edo helburuak aztertuz. Gure bailaran dentsitate kooperatiboa oso handia da eta gure burua gobernatzeko kultura Euskal Herri osoan ere ikus daiteke. Era berean, iniziatiba soziala eta kooperatiboa inon badago, Debagoienean dago. Diputazioarekin sinatu dugun hitzarmenak horren gaineko ikerketa bultzatzea du helburu eta, aldi berean, XXI. mendeari begira ekonomian, ekologian, nekazaritzan, hezkuntzan edo gizarte mailan dauden erronkak aztertu.

**Beraz, eragile kooperatibo eta sozialengana joko duzue ikerketa egiteko...**

Bai, zerbitzu, industria, kontsumo, aurrezki, hezkuntza kooperatiboa, herri ekimenak... sare hori guztia aztertuko dugu, edo aztertzen jarraituko dugu. Asmoa ikerketa aurten egitea da. Bizirik dauden kooperatiben sakoneko motibazioak zeintzuk diren aztertu, garapen lokala eta aldi berean eskualdekoa lortzeko egungo klabeak zeintzuk izan daitezkeen ezagutzen joan ikerketa bidez, modu serioan. Gogoratu behar da, kooperatiben kasuan subjektu bera dela protagonista eta, aldi berean, akzioaren hartzailea, jasotzailea. Ideia horren inguruan esperientzia interesgarriak sortzen ari dira han eta hemen.

**Enpresako esparrua gainditu, kooperatibismoa beste hainbat esparrutara zabaltzea da asmoa, ala?**

Hori ez da berria, auto-eraketaren paradigman kokatzen den zenbait ekimen daude formula juridiko horrekin edo beste batekin. Beren burua gobernatzen duten erakunde berriak, hezkuntza, kooperatiben indartzea eta politika publikoen arloetan egingo dugu lan. Lehenengo fase baten, ikerketa mailan hiru arlo nagusi izango dira: alde batetik, gaur egun diren kooperatibei biziberritzen lagundu: oraindik ere kooperatibismoa zergatik den baliagarria aztertu; bestetik, kooperatibizatzeko modukoak diren sektore berriak (hirugarren adinarekin lotutakoak, etorkinak, kultura arlokoak eta abar). Sustapen arloa litzateke hau. Eta, azkenik, auto-eraketa prozesuan beharbada arlo funtsezkoena den hezkuntza arloan sakondu.

BESTE POLITIKA

**"Politika publikoek eta gizarteak bat egin behar dute; ausardia, elkarlana eta berrikuntza, konplexu barik..."**

ERRONKAK

**"Errentagarriak izan behar dugu, bai, baina inguruko gizartearekin bat egin behar dugu"**

**Politika publikoetan kooperatibismoaren ekarpena zein izan daiteke?**

Politika publikoen ikerketa bigarren fase baterako utziko dugu, baina zera ikusi da: berrikuntza gutxi egon dela politika egiteko orduan. Debagoienak duen tradizio bereziagatik, badago potentzial bat gauzak beste era batera antolatzeko. Beste hainbat esparrutan emaitza onak eman dituen elkarlana ezinbestekoa da. Politika publikoek eta gizarteak berak bat egin behar dute; ausardia, elkarlana eta berrikuntza, konplexu barik... Modu berriak asmatzeko ausardia ezinbestekoa da zerbait interesgarria lortu nahi bada behintzat, nola bestela? Ez dago ulertzerik, hipotesi moduan diot gero ikertu egin beharko delako hori, politika publikoa deskonektatuta egotea herri iniziatibatik. Gure gobernu lokaletan ere sentsibilitate eta ibilbide berezia dagoelakoan nago, honetan eta hartan ibilitako pertsonak. Horrek gauzak beste modu baten antolatzen lagundu dezake

**Kooperatibismoaren hausnarketa egiterakoan, zeintzuk izan dira antzeman dituzuen gabeziak, edo puntu ahulenak?**

Beharbada garai bateko parte hartzea hoztu egin da zelanbait. XXI. mendean kooperatibismoa egiteko zergati nagusia ez dugu zaindu, belaunaldi berriekiko transmisioa, zentzuarena, gure bisioaz ez gara arduratu. Etorkizunera begira, iparra aurkitzea funtsezkoa da. Dispertsio eta handitzearekin parte hartze mekanismoak hoztu egin daitezke, demokrazia bera, eta hori zaindu egin behar da derrigorrean. Gizartea aldatu denean ez dugu zaindu biziberritzeko transmisioa. Zein da gure zentzua, norabidea? Gogotsu gaude horretan lan egiteko.

**Krisi sasoi honetan, kooperatibismoa indarrean dago?**

Gure kooperatiben zenbait esperientziek, hainbat interkooperazio mekanismok eta Euskal Herriko beste iniziatiba komunitario batzuek hori erakusten dute. Osasuntsu jarraitzeko errentagarriak izan behar dugu, bai, baina inguruko gizartearekin bat egin behar dugula inoiz ahaztu gabe; gure oinarrizko zentzuak gorde eta garaian garaiko pertsonari eta gizarteari begira egon, pertsona eta komunitatea. Erronkei adi egon behar dugu, egungo zentzu-kimuei arreta berezia eskainiz, etengabeko ariketa horretan.

KIBUC GURE AMETSA
ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK
WWW.KIBUC.COM
NIRE ETXEA ♥ DUT

AZPEITIAN GAUDE, ALTZARIAREN SORLEKUAN, ETA ARLO HONETAN 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU.
4.000 METRO KOADROTIK GORAKO GUZTIZ ERABERRITUTAKO ERAKUSKETA DUGU.
ESKATU ORDUA ETA GURE DEKORATZAILE PROFESIONALEN AHOLKULARITZA.
ESKATU PARKING ZERBITZU PRIBATUA.




KIBUC
altzari eta osagarriak
Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC Gure Ametsa
altzari eta osagarriak
www.kibuc.com

**kale inkesta**

# Urte berria hasi dela-eta badaukazu helburu berezirik? Betetzen dituzu asmo horiek?



**Jose Castro**
Pentsioduna
Bergara

Asmoak asko dira. Ea datorren urtea pasa dena baino alaiagoa den. Dena dela, asmoek gutxi irauten dute. Baina gauza bat esango dut, txikiteoa kentzea ez da sekula izango niretako urte berrirako helburuetako bat.



**Aintzane Rementeria**
Langilea
Bergara

Ba, egia esan, ez daukat asmo berezik. Ume txikitxo bat daukat eta dena ondo joatea nahiko nuke. Asmoak, baina, hitzetan geratzen dira. Asko esaten dugu, baina, gero ez dugu esaten dugunaren herena ere betetzen.



**Pedro Lopez**
Langilea
Bergara

Egoera ekonomikoa dagoen moduan egonda, nere helburu nagusia da hasi berri dugun urtean egunero-egunero lana egitea. Ez da gutxi izango. Beste urte batzutan egin ditudan promesak bete izan ditut.



**Juan Luis Barrutia**
Langilea
Bergara

Pertsonalki ez daukat helburu berezirik. Datorren urtea izan dadila bukatu dugunaren berdina. Ez da gutxi izango. Bestela, urte berrirako eskatuko nuke ezker abertzalea behin betiko bakean utz dezaten.

**zorroztailea**



Joxemari Muxika

# Herri aldizkarien estimazioa

"CIES-en neurketaren arabera *Goienkaria*-ri dagozkion datuak onak dira: 45.000 irakurle ditu Gipuzkoan eta 39.000 Debagoienean -40.000 Aramaio kontuan hartuta-. Ibarreko aldizkaririk irakurriena izaten jarraitzen du; El Diario Vasco (23.000), Gara (8.000) eta Berriaren (2.000) aurretik"

*Asteleheneko Goienkaria* > 08/12/22




Herri aldizkariak oso irakurriak dira, goiko datuak eta Topagunea euskara elkarteen federazioko *Aikor!* eta *Eta Kitto!* aldizkariei buruz egindako azterketek ere hori erakusten dute.

Honen arrazoietako bat aldizkariek duten hedapena da, *Goienkaria*-k18.500 ale inguruko eskaria du Debagoieneko 63.000 biztanleko poblazioan, ia etxe guztietara iristen da.

Aldizkaria eskura jartzeak eta ordaindu beharrik ezak eskaria errazten du; irakurtzea norberaren aukera da, jakina. Jakinmina pizten duten aldizkariak dira, diseinu erakargarriaz aurkeztutako albistez beteak, bestela ez bailukete irakurtzeko interesik sortuko.

Horixe adierazten du irakurle kopuru altuak, Debagoieneko biztanleen %63koak. Aldizkari estimatua da eta ez solik buzoira sartua izan den zerbait.

Bada doakoa izatea zalantzan jartzen duenik, baina aldizkaria eskuratzeko erraztasuna euskararen erabilera garatzeko bitarteko egokia da: euskaraz irakurtzera animatzen ditu euskaldunak eta herritar guztiak eta iragarkiak jartzea merkatariak. Egokia ezezik beharrezkoa ere bada doakoa izatea, askok irakurtzeko ohiturarik ez dutelako.

**"Funtsean, doan izatea guztiendako iristeko aukera ematea da"**

**"Ezin da jendearen irakurtzeko aukera berdintasuna zapuztu"**

Funtsean, doan izatea guztiengana iristeko aukera ematea da, arrazoi demokratikoa da, irakurtzeko aukera areagotzen duelako. Ezin da jendearen irakurtzeko aukera berdintasuna zapuztu eta horixe gertatuko litzateke merkatuaren baitan utziko balitz euskarazko aldizkari bat. Euskarak merkatu txikiegia du ekoizpenaren koste osoa salneurrira eramateko.

Jokamolde hau ez da berria, antzeko ildoa jarraituz irakurketa bultzatzeko liburutegiak doan jartzen dira eta hezkuntza orokortzeko irakaskuntza doan eskaintzen da.

Euskaraz hitz egin ahal izateak jendartearen bizikidetza erraztea dakar. Ohitura eta bitarteko gutxien dituena ezin da merkatuaren baitan baztertu.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Izotza musakola auzoko pasealekuan, itogin batek sortuta**

Musakola auzoko pasealekuan, egun itxita dagoen Ale enpresaren kanpoaldean, hain zuzen, teilatutik pasealekura irteten den itogin batek izotz plaka bat sortu du. Bertatik paseatzen duen irakurle arrasatearrak jakinarazi digunez, arriskutsu dago eta dagokionari itogina konpontzeko eskatu du.

Ez da hori, baina, izotzak eragin duen arazo bakarra izan. Beste batzuen artean, arrasatear batek egunotan skate parke ondoko zubia zeharkatzea ezin arriskutsuago dagoela esan digu.

OÑATI
**> Ariketa fisikoa egin ostean, izerdia garbitu**

Oñatiko gimnasioan izan den kirol zale batek ariketa fisikoa egin ostean izerdia garbitzea komeni dela gogoratu du. Bergarako Agorrosingo kiroldegiaren erabiltzailea da eta bertan ariketa fisikoa egin ostean zoru garbigailu bat izaten dute eskura, di-da baten zoruan geratu den izerdia garbitzeko.Azken finean, errespetu kontua da, datorren erabiltzaileak dena behar bezala aurkitu dezan.

ARRASATE
**> Aparkatzea 'abentura' bihurtu da Arrasaten**

Arrasatera maiz datorren gidari batek Arrasaten aparkatzea *abentura bat* dela dio. Haren ustez, Biteri plazako aparkalekua ez da nahikoa; bataz beste ordu erdi behar izaten du aparkatzeko.

**usteak uste**

Arritxu Barruso

# Eski-estazioa etxean bertan

Mendiak eta eski-estazioak elurrez gainezka daude aurten, aspaldiko partez. Baina beti gertatzen da zerbait. Aurten elurra bai, baina, krisi ekonomikoa dela-eta bat baino gehiago Pirinioetara edo Alpeetara joan barik gelditu beharko da. Neguak horrela jarraitzen badu, baina, Pirinioetara joan barik etxean bertan eskiatzeko aukera izango dugu elur zaleok. Zapatuan Arantzazun izan nintzen. Badakizue, elurra egiten duenean badirudi mendira joan behar garela guztiok. Kontua da Arantzazu beharrean Baqueira-Beret zirudiela santutegiak: eskiak, *snowboard* egiteko taulak eta aparkalekua topetaraino beteta... gauza bakarra falta zen: Arantzazutik Aizkorrira igotzeko teleaulki horietako bat.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Edu Mendibil, Mireia Bikuña, Jokin Bereziartua, Arritxu Barruso **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Biteriko lur azpiko parkingean 285 plaza dituzte kontzezioan emateko **> 14**



**> BERGARA**
Zabalotegi aretoaren funtzionamenduaren eta harreraren balorazio positiboa egin dute **> 16**



**> ARETXABALETA**
Udaleko Hirigintza eta Ongizate Sailak liburutegi zaharrean hartuko dituzte herritarrak **> 19**

**BERGARA** > INGURUMENA

# "Gidaren helburua da landaretzaren gaineko sentsibilizazioa bultzatzea"

**GIDA**
'Usondoko zuhaitzak' izeneko gida kaleratuko du Udalak

**32 ZUHAITZ**
Parkeko 32 zuhaitz eta zuhaixka espezieak batuko ditu Maitane Arizabaletak gidan

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bergarako Udaleko Ingurumen batzordeak *Usondoko zuhaitzak* delako gida kaleratuko du laster. Gida horrek batuko ditu Usondo parkeak dituen 32 zuhaitz eta zuhaixka espezieak.

Maitane Arizabaleta bergararra da gidaren egilea eta hark azaldutako moduan: "Gida bideratuta dago jende guztiari, eta modu ulerterrazean, Usondoko zuhaitz eta zuhaixken ezaugarri esanguratsuenak jasoko ditu".

Tamaina txikiko formatua izango du gidak eta bina orrialde hartuko ditu zuhaitz edo zuhaixka bakoitzak. Hala, bakoitzaren argazkiak, jatorria, toponimia, ezaugarriak, haren inguruan dauden sinismenak eta erabilerak ezagutzeko aukera emango du.

**HERRI ABERATSA**

Bergara herri aberatsa da zuhaitz eta eremu berdeei dagokienean: Usondo, Errekalde, Errotalde, Arrizuriaga... oinordekoek lagatako altxorrak dira. Eta gaur egungoei ere ondo zaintzea dagokigu. Hori horrela, eta Maitane Arizabaletak esandako moduan: "Zuhaitzak ezagutzea, haien ezaugarriak, izenak, funtzioak... ezagutzea aberasgarria izateaz gain, zuhaitzok babesteko urratsak ematea ere bada".

Usondo parkea ere, oso aberatsa da eta bertako landaretza izateaz gain, landare exotikoak ere badituela azaldu du Maitane Arizabaletak, Baliabide Natural eta Paisajistikoetako goi teknikaria denak.

Horrekin batera azaldu du, Usondon dauden zuhaitz espezie gutxi batzuk Bergaran ezin direla beste inon aurkitu, "kanpotik ekarritakoak direlako". Beste batzuk, ordea, pagoa eta haritza, esaterako, "gure basoetan orain dela gutxira arte ugarienak ziren arren, gaur egun, berriz, bizirik irauten nahikoa lan duten espezieak dira".

**SENTSIBILIZAZIOA HELBURU**

Arizabaletak azaldu du liburuxkaren helburua dela "besteak beste, sentsibilizazioa sustatzea eta bertan dugun aberastasuna ezagutzera ematea; izan ere, ezagutuz gero, maitatu egiten da, eta hori biziraupena ziurtatzeko ezinbesteko oinarria da".

Udalak martxoan egingo duen Aste Berderako kalean egongo da gida eta Ingurumen zinegotzi Mikel Etxanizek azaldu duenez, banatu egingo dute.

Horrez gain, gehitu du ikastetxeetako neska-mutikoendako ibilbide gidatuak ere egingo dituztela Usondo parkean barrena, sentsibilizazioa bultzatzeko urrats moduan.

USONDO PARKEA

## Herriko lehenengo parke publikoa

Usondo da Bergarak izan duen lehen parke publikoa. Jatorrian Laureaga etxeko lorategi pribatua zen, XX. mendearen lehen hamarkadan Urdangarin familiak sortutakoa.

Laureaga etxekoek Bergarako beste familia batzuen eredua jarraitu zuten; izan ere, XIX. mendean, Errekalde jauregian eta Untzeta etxean ere lorategi pribatu zabalak zeuden.

Usondok lorategi pribatua izaten jarraitu zuen Udala haren jabe egin eta 1980ko hamarkada hasieran publikora ireki arte. Parke publiko izaera emateko, hainbat gauza aldatu zituen Udalak: zuhaitzak moztu, jatorrizko bide sarea egokitu... Hala ere, duela 100 urte inguru Laureaga etxeko lorategia sortzeko landatu ziren hainbat zuhaitzek han diraute.



**EGILEA ETA PARKEA** Maitane Arizabaleta bergararra Usondo parkeko eserlekuetako baten. MONIKA BELASTEGI

**ARRASATE** > UME ETA GAZTETXOEN AISIALDIA

# Auzotik irten barik ume eta gaztetxoek jolasteko aukera

Txatxilipurdi aisialdi elkarteak zapatuetan auzoetara eramaten du ludoteka ibiltaria ume eta gaztetxoek 11:00etatik 13:30era bitartean jolas dezaten

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Txatxilipurdi aisialdi elkarteak urte ugari darama Arrasateko eta beste herri batzuetako ume eta gaztetxoen aisialdia lantzen. Arrasaten, gainera, betidanik ahalegin berezia egin dute auzoetan ere eragiteko. Ekintza horien artean nabarmendu beharra dago urteko zapatu askotan egiten duten ludoteka ibiltaria.

**3 ETA 12 URTE BITARTEKOENDAKO**
Ludoteka 3 eta 12 urte bitartekoendako zerbitzua da, Arrasate erdialdean daukatena. Eta zapatuetan auzoetara eramaten dutenean ere oso harrera ona izaten du. Herenegun San Andresko Bedoñabe eskolara joan ziren, eta ume eta gaztetxoak oso gustura izan ziren jokoan.



Ume eta gaztetxoak kontzentratuta egoten dira jokoan. JOKIN BEREZIARTUA



Mauka ederren bila joaten dira herritarrak merkatu txikira. IKER BARANDIARAN

**BERGARA** > MERKATU TXIKIA

# Hotzari aurre egin zioten saltzaileek eta erosleek

San Martin plazan dozena bat saltoki batzen dira zapaturo; jende dezente hurbiltzen da

**I.B.** > BERGARA
Asteburu hotza izan bada ere, zapatu goizean ez zuten kale egin herri askotatik Bergarara etortzen diren kale saltzaileek; ezta bezeroek ere.

Orain dela gutxi Katabiatik San Martin plazara pasa zuten azoka eta erosleak eta saltzaileak pozik daude aldaketarekin. Dena dela, baten zein bestean hotzetik ezin babestu.

Ditxosozko krisia dela edo ez dela, herritarrek goizeko hotzari aurre egin, eta erosketak egiten ibili ziren tradiziozkoa bihurtu den zapatuetako merkatu txikian.

**Aretxabaletan gai organikoa banatzen hasi gura dozu?**

Aretxabaletako Udalak, Debagoieneko Mankomunitatea, GFA eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioarekin elkarlanean gai organikoak aparte jasotzeko esperientzia jarri zuen martxan Irailean.

Horretarako marroi koloreko edukiontziak ipini dira herrian. Edukiontzi hauek giltza bidez irekitzen dira eta erabili ahal izateko **ezinbestekoa da izena ematea**. Parte hartzen dutenei etxean gai organikoa banatzeko kuboa eta poltsa konpostagarriak banatuko zaizkie, sailkapena behar bezala egin ahal izateko.

Ekimen hau Gipuzkoako Udalerri batzuetan egingo den probako esperientziaren parte da. Zuk ere parte hartu nahi baduzu eta oraindik ez baduzu izenik eman, orain bigarren aukera bat duzu. Horretarako, hiru bide dituzu:

- Telefonoz: 943 08 10 01
- Posta elektronikoz: anabel@aretxabaleta.net
- Arkupe Kultur Etxera hurbilduz.

Izen emateko epea: **urtarrilaren 12tik 23ra.**

Aretxabaletako Udala
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

**DEBAGOIENA** > ELURRAREKIN GOZATZEN

# Elurrari etekina atera diote ume eta nagusiek

## Elur artean ibili eta gozatu gura duenak mendi aldera jo du asteburuan, guztia urtu aurretik

**I.B.** > BERGARA

Joan den asteko elurrak, aspaldiko partez, Debagoieneko hainbat herri eta mendi zuritu ditu. Estalki zuriak, baina, oso gutxi iraun du gure herrietako kaleetan. Mendietan, berriz, oraindik bada elurrik.

Hala, elurrak herritar askorengan (ez guztiengan) eragiten duen erakargarritasunak bultzatuta, askok mendi aldera jo dute elur horretaz gozatzeko. Gorla, Arantzazu, Udala, Asentzio… hainbat izan dira debagoiendarren jomuga.

Askorendako oso gozagarria da mendi elurtuetan paseatzea; paisaia hori bertatik bertara ikusteak asetzen ditu. Beste batzuek (gaztetxoenak, batez ere) etekin handiagoa ateratzen diote: elur bolak elkarri jaurti, malda elurtuak trineoan jaitsi, mendi aldeko eskia egin, elurrarekin panpinak egin…

Elurra urtzen hasi da, baina laster elur gehiago ikusiko dugula diote adituek.



Eguraldi onaz baliatuta, familia asko igo ziren mendira domekako egunaz gozatzeko. ENEKO AZKARATE



Gaztetxoek zein gurasoek, ez dago jakiterik zeinek pasatzen duen hobeto elurretan. ENEKO AZKARATE



Arantzazuko fraideak bakarrik falta ziren trineoan ibiltzeko. ARRITXU BARRUSO



Duda barik, askotan, gurasoak dira okerrenak. JOSETXO ARANTZABAL



Elur panpinak egiteko ohitura ez da sekula galduko. ENEKO AZKARATE



Elurtutako mendietan ibiltzeak xarma handia dauka. ARRITXU BARRUSO

**ZERBITZUAK** > BITERIKO APARKALEKUA

# Biteriko lur azpiko parkingean 285 plaza dituzte kontzezioan emateko

Oraindik ere indarrean dago 1.500 euroko beherapena halako plaza bat eskuratzeko

2009ko tarifak KPItik gora igo dituzte; hala ere, dagokiena baino merkeagoak dira

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Urte berria, prezio berriak. Halaxe izaten da zerbitzu gehienetan, eta Biteriko lur azpiko aparkalekua ez da salbuespena. Juan Gorostiagak, aparkalekuaren kudeaketa arduradunak esandakoaren arabera, %4ren bueltako igoera izango dute txandaka erabiltzen diren aparkalekuen prezioek aurten. Kopurutan begiratuta, 2008an, ordubetez Biterin automobila aparkatzeagatik kobratzen zuten 1,1 euro. 2009an, berriz, kostako da 1,20 euro. Bestela esanda, minutua kostako da 0,020 zentimo. "KPI baino apurtxo bat gehiago igo ditugu prezioak, baina kontuan hartu behar da hemengo Udalean onartutako prezioak baino gutxiago gabiltzala kobratzen, prezio horien %40 gutxiago", aditzera eman du parkingaren arduradunak.



Txandaka erabiltzeko plazak erabiltzeko ohitura badute herritar askok, eta nahiko beteta egoten dira lekuak. U.M.

**EIBARKOAREN ERDIA**

Gorostiagak azpimarratu gura izan du, gainera, datozen urteotan bide beretik segitzeko asmoa dutela, hau da, txandakako aparkalekuen prezioak Udalean onartutakoak baino baxuagoak izango direla: "Prezioa bonifikatzen segituko dugu, jendearendako horren garestia izan ez dadin eta modu horretan, jendea fidelizatzen ahalegintzen jarraituko dugu". Horren gaineko adibide bat ere ipini du: "Gure enpresak, Bikanik, Eibarren beste aparkaleku bat ere kudeatzen du, eta han ordubeteko prezioa da 2,1 euro", Arrasatekoaren ia bikoitza, beraz.

Edozelan ere, Bikani enpresako ordezkariak aditzera eman du gustura daudela txandakako aparkalekuek duten erabilerarekin: "Gutxika-gutxika, baina jendea badabil aparkalekua erabiltzen. Azoka egunean, adibidez, erabilera handiagoa izaten da. Domeketan, berriz, ia ez da inor ibiltzen. Baina, orokorrean okupazio maila gorantz doa". Era berean, gogora ekarri du, Ibai Arteko edozein dendatan erosketaren bat eginez gero, Biteriko parkingean aparkatzeko beherapenak ematen dituztela. Eta gaineratu du merkatari elkarteak atera duen fidelizazio txartel berria aprobetxatuta, badabiltzala pentsatzen beste zerbait egiteko aukera.

**285 PLAZA SALDU GURAN**

Hori bai, oso bestelako egoeran daude kontzesioan emateko dituzten aparkalekuak: guztira 445 plaza dituzte eta 285 dituzte saldu barik "Oraindik ere ez gaude ohituta kontzesioaren figura horrekin. Jendeak gura du aparkalekua erosi. Pentsatzen du kontzesioan hartzea dela dirua botatzea, eta ez da horrela", dio Gorostiagak. Kopuruak ipini ditu adibide moduan: "Azken batean, halako plaza batek balio ditu 15.000 euro; azken hilabeteotako beherapenarekin, 13.500 euro. Horrek esan gura du urtean ordaintzen dela 270 euro. Edo bestela esanda, hileko 22 euro kostatzen dela 50 urtean ondo zaindu eta babestutako aparkalekuan automobila uzteko eskubidea izateak. Gainera, gura denean transmititu diezaioke erosleak beste norbaiti kontzesio hori".



JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

## Inigo Arregi arrasatearraren eskultura LKSn

Iñigo Arregi izango da seguruenik Arrasateko eskultore famatuena. Joan den astean eskultura bat jarri zuen Garaia ikerkuntza guneko LKS enpresaren aurrean –irudian, Arregi bere obraren ondoan, eskultura kokatu aurretik–. Artista umil eta nekaezina da Arregi. Eskultura, grabatua eta pintura jorratu izan ditu batez ere. Artea egin eta artea herritar xumeari ekartzen saiatu izan da betidanik. Azken horren adibide garbia da –bere proiektuek uzten dioten bitartean behintzat– Maala kalean daukan denda txikian hamaika erakusketa interesgarri antolatu dituela, lagun dituen artisten lanak erakutsiz.

**KIROLA** > AUKEA

# Aukeako tarifak %4ko igo dira urte berriarekin batera

Igoerak ez du eraginik ikastaroetan; bonoak eta beste zerbitzuak soilik garestitu dira

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Urte berriko tarifa berriak aurkeztu ditu Aukea kirol zerbitzuak. Orokorrean igoera %4koa izan da, eta bono guztiei eta bestelako zerbitzuei eragingo die bakarrik. Hau da, aurretik martxan dauden ikastaroen prezioak bere horretan mantenduko dira.

Denetariko bonoak daude Musakolako kiroldegiaren zerbitzuetaz gozatu ahal izateko. Urteko igerilekuko bono indibidualak, esaterako, 68 euro balio du gazteentzat, eta 115 euro helduentzat. Familia osoarentzako bonoak, bestalde, 181 euro balio du; hori bai, seme alabak 20 urtetik beherakoak izan behar dira. Bestalde, egun baterako sarrerak hiru eurotan eskura ditzakete 20 urtetik beherakoek eta sei eurotan 20 urte baino gehiago dutenek.

**ESKAINTZA BERRIAK**

Aukeak, tarifa berriak aurkezteaz gain, ikastaro berri batzuk abiaraziko dituela jakinarazi du. Pilatesaren aldeko apustua berretsiz –aurrekoetan oso harrera ona izan du–, ikastaro hori egiteko ezinbestekoa den hastapen ikastaroa jarriko du martxan.

Ikastaroen hitzorduak, egunotan: urtarrilaren 20, 22, 27 eta 29an, 9:30etik 15:00etara; eta hilaren 19, 21, 26 eta 28an, 20:30ean. Izena emateko bi aukera daude: kiroldegian zuzenean edo 943 77 16 77 telefonora deituz.

**Maider Iglesias** > Praktikak atzerrian egin dituen erdi mailako heziketa zikloetako ikaslea

# "Lanbide heziketako zikloetan kalean uste dena baino hobe egiten da lan"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Ez da ohikoa batxilergoa eta Lanbide Heziketa –erdi mailako zikloak– urte berean amaitzea, eta are ez ohikoagoa da erdi mailako ikasketa horien praktikak atzerrian egitea. Hain da arraroa, orain arte Euskal Herri mailan, zortzi gaztek bakarrik izan dutela praktika horiek kanpoan egiteko aukera.**

**Zortziak Eusko Jaurlaritzak irailean abiarazitako egitasmo pilotuan parte hartu zuten ikasleak dira. Eta horien artean dago Maider Iglesias arrasatearra, Arizmendi ikastolako ikaslea (Arrasate, 1988). Erizaintzako zikloa amaitu ondoren hiru hilabetetako praktikak egin zituen Italiako Vicenza hiriko ospitale pribatu batean, irailaren 20tik abenduaren 20ra. Datorren ikasturtean Erizaintzako diplomatura ikasteko asmoa dauka.**

**Nola izan zenuen ekimen aitzindari honen berri?**

Arantza Hernandez irakasleak proposatu zidan praktikak kanpoan egitea. Nik ez nuen egitasmoa ezagutzen eta Arantzak azaldu zidan guztia.

**Hortaz, atzerrira irteteko gogo biziak zenituen, ezta?**

Egia esan behar badut, ez neukan gogo berezirik kanpora irteteko. Izen emate epea amaitu baino egun bat lehenago egin nuen eskakizuna beka jasotzeko. Zortea aldeko izan, eta horixe, beka egokitu zitzaidan. Finean, praktikak Italian egitea kasualitate hutsa izan da nire kasuan, baina oso esperientzia ona izan da. Gainera, praktikak baliozkotu egin dizkidate, eta beraz, ondo baino hobeto etorri zait.

**Zergatik diozu oso esperientzia ona izan dela?**

Oso aberasgarria izan da niretzat kanpora irtetea. Euskal Herriko zortzi lagun joan ginen guztira Italiako Vicenza hirian hiru hilabetez praktikak egitera. Jaso genuen bekak gastu guztiak ordaintzeko beste eman digu eta praktikak egiteaz gain turismoa egiteko aukera ere izan dugu.

Hau da, astelehenetik egubakoitzera ospitale pribatu batetan praktikak egin [erizain laguntzaile izatea gura du] eta aste bukaeretan txoko ezberdinak bisitatzeko irteerak egiten genituen. Leku asko ezagutu ditugu.

Bestalde, italiera ikasteko aukera ere izan dut. Heldu eta gutxira, bi astez ibili ginen hizkuntzaren oinarrizko esamoldeak ikasten, intentsibo moduan. Gero, eguazten arratsaldero ordubeteko klaseak ematen genituen.

**"Praktikak Italian egitea kasualitatea izan da, baina oso esperientzia ona izan da niretzat"**

**"Praktikak ospitale pribatu batean egiteaz gain, italiera ikasteko aukera ere izan dut"**

**Nahiko kasu berezia da zurea. Batxilergoa egiten hasi eta amaitu baino lehen erdi mailako heziketa ziklo batean sartu. Eta, gaur egun, biak amaitu dituzu. Azal iezazkiguzu zure aukeraketaren arrazoiak.**

Batxilergoa eta erdi mailako modulua batera egin ditut. Batxilergoa ateratzeko hiru irakasgai gainditzeke geratu zitzaizkidan eta erizaintzarako laguntza osagarriak deritzon heziketa zikloan izena ematea erabaki nuen. Eta orain Erizaintza [diplomatura] ikasteko asmoa daukat.

**Erabaki duzu non ikasiko duzun Erizaintza?**

Seguruenik atzerrian ikasiko dudala; ez dut erabaki.

**Kalean Lanbide Heziketako erdi mailako zikloko ikasleak gutxietsi egiten direla esan daiteke, ikasle horiek lan mundura begira etorkizun beltza dutela eta halako balorazioak eginaz. Zer uste duzu zuk?**

Ez dela egia Lanbide Heziketako zikloetan titulurik ez dituzten pertsonak bakarrik aurkitzen direla. Hemen tituludun ikasleak daude, eta kalean uste dena baino hobe egiten da lan.



Lanbide Heziketako praktikak Italian egin ditu Maider Iglesiasek. ARIZMENDI

---

GIZARTEA > KULTUR ANIZTASUNAREN ASTEA

## Kultur aniztasuna oinarri hartuta, ipuinak, antzerkia eta beste, Kulturaten

Kultur Aniztasunaren Astea antolatu du Ekin Emakumeak elkarteak, gaur astelehena hasi eta egubakoitzera arte, arratsaldero

U.M. > ARRASATE

Heldu zein umeendako ipuinak, ikus-entzunezkoak eta tailerrak izango dira gaurtik (astelehena) egubakoitzera bitartean Kulturaten. Ekin Emakumeak elkarteak bideratutako ekimenak dira, Kultur Aniztasunaren Astea antolatu du-eta.

**KULTURA ARTEKOTASUNA SENDOTU**

Helburua da "batez ere, kultura artekotasuna sendotu eta kultura aniztasuna ezagutzera eman", aditzera eman du Maite Uribarrenek, Ekin elkarteko ordezkariak. Zera ere gaineratu du: "Jendeak ikusi dezan beste kultura batzuk ere badaudela eta hori oso aberasgarria dela". Hori horrela, azpimarratu gura izan du herritar guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatu dituztela: "Mutilak, neskak, umeak zein helduak etor daitezke".

**GUZTIENDAKO MODUKOAK, DOAN**

Ekitaldi guztiak Kulturaten egingo dituzte, arratsalde partean. Edozelan ere, kontuan hartu behar da ekitaldietako batzuk areto nagusian izango direla eta beste batzuk Jokin Zaitegi aretoan. Hori bai, guztiak dohainik ikusi ahal izango dira. Ekin elkarteko ordezkariak gura du jende guztia animatu parte hartzen "uste dugu interesgarria eta polita izango dela", esan du.

### Egitaraua, eguna-ordua

**12, astelehena**
18:00-19:30 Emakume etorkinen egoerari buruzko tailerra; *Extranjeras* dokumentalaren emanaldia eta tailerra.

**13, martitzena**
19:00 Helduendako ipuin kontaketa, Itziar Rekalderen eskutik: *Bidaiek ez dute itzulera*. Jokin Zaitegi aretoan

**15, eguena**
18:00 Ikusentzunezkoa: *Mundua zazpi koloretan*. Diapositibak, marrazkiak, irakurketak eta musika.

**16, egubakoitza**
17:30 Umeendako ipuin kontaketa: Afrikako ipuinak, Miren Camisonek kontatutakoak. Jokin Zaitegi aretoan.

---

ZERBITZUAK > IGOGAILU PUBLIKOAK

## Muxibarko igogailua Larragaineraino iristeko aukera aztertzen dabil Udala

Gorostiza auzoko bizilagunek igogailu publikoaren erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu diote Udalari

U.M. > ARRASATE

Muxibarko parkingean eraiki eta abenduan estreinatu duten igogailu publikoa solairu bat gorago iristeko aukera aztertzen dabil Arrasateko Udala. Hori horrela, Larragaineraino iritsiko litzateke. Hirigintza Saileko teknikari-buruak Juan Antonio Urdangarinek, aditzera emandakoaren arabera, azterketa teknikoa egiten dabiltza orain eta dagoeneko sartu dute aurtengo aurrekontuetan proiektu hori gauzatu ahal izateko diru partida, "dena den, lehenengo aurrekontuak onartu egin beharko dira", azpimarratu du udal teknikariak; hori bai, era berean azpimarratu du aurrekontuak onartuz gero, "berehala" hasiko liratekeela egokitzapen obrak, izan ere, parkinaren ugazabarekin adostuta dute obra hori egiteko aukera izatea.

**BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA**

Hirigintza tenikariak aditzera eman du hori guztia egiten dabiltzala Gorostiza auzoko bizilagunek aurkeztutako kexuak aintzat hartuta; izan ere, haiek, 157 bizilagunen sinadurak babestuta, berraztertze errekurtsoa aurkeztu diote Udalak urrian auzotarren eskaerei emandako ezezko erantzunari.

Enara Minguez > Kultura zinegotzia

# "Zabalotegik erantzun ona jaso du; kultura ikuskizunetarako gosea zegoelako da hori"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

**Zabalotegi aretoa irekita ia lau hilabete bete dira. Arduradunek balorazio positiboa egin dute eta aurtengorako berrikuntzen berri eman.**

**Zelan joan da Zabalotegi?**

Dagoeneko dinamika iraunkorra du. Erantzun ona izan du. Herritarrek gustura hartu dute. Lokala txukun geratu da eta ekitaldiei dagokienean ere, arrakasta izan dute.

**Horren isla da umeendako ikuskizunen kasuan bakoitzeko saio bi egongo direla?**

Bai. Ikusita ikuskizun batzuetan geratzen zirela umeak ezin sartu, erabaki genuen abenduan ikuskizun bakoitzeko bi pase eskaintzea urtarriletik aurrera. Hala, urtarrilerako antolatuta dauden umeendako ikuskizunetan bi pase egingo dira.

**Zein da erantzun on horren arrazoia?**

Uste dut herrian bazegoela batik bat kultura ikuskizunetarako halako gose bat. Izan dugun azken kultura aretoa izan zen Novedades eta zen, batez ere, zine emanaldietarako. Hura itxi zutenetik ez dugu besterik izan. Hala, Aroztegin edo osoko bilkuren aretoan egin izan ditugu Zabalotegi egokitu arteko ekitaldiak, baina aretook dituzten muga guztiekin.

Egia esan, ez nuen uste Zabalotegira hainbeste jende joango zenik, batez ere, ohitura faltagatik. Izan ere, gaztetxoek ez dute Novedades ezagutu eta ez dute ohiturarik halako ekitaldiak ikustera joateko. Horregatik uste nuen jendeari kosta egingo zitzaiola joatea. Baina kontrakoa ikusi dut eta balorazio positiboa egiten dugu.

**Dena den, Zabalotegik muga handiak ditu.**

Bai. Zinema emanaldiak eta formatu txikiko emanaldiak antolatzera mugatzen gara. Ez goaz ikuskizun handien bila, badakigulako aretoak ez duela horretarako ematen.

Muga horiek gainditzeko asmoz, Udal gobernuak badu buruan, eta ezaguna da honezkero, Miguel Altunaren orubean ekintza anitzetarako areto handia egiteko proiektua lantzen hasteko gogoa. Horrek nahiko luze joko du eta bien bitartean Zabalotegi izango dugu eta nola ez, Udal pilotalekua, ekitaldi handiagoetarako.

**Egin nahi duzuen eraikin berri horren harira eman duzue urratsik?**

2009. urtea erabiliko dugu diseinatzeko, enpresa espezialdu baten laguntzarekin, behar dugun eraikin horren ezaugarriak. Asmoa da herriko kultura taldeekin batera aztertzea zeintzuk diren beharrak, gero, horien arabera eraikina diseinatzeko.



Enara Minguez. MONIKA BELASTEGI

**"Umeendako saioetan erantzuna halakoa izan da, bakoitzeko bi emanaldi egongo direla"**

**"Kultura taldeekin batera aztertu nahi ditugu herriko beharrak horren araberako eraikin berria egiteko"**

**Goiko Estazioko eraikina ere egokitzen hasi berri zarete musika taldeendako entsegu lokal moduan. Nola doaz lanak?**

Ondo. Kanpoko lau paretak bakarrik daude zutik. Gainerako guztia berria egingo da. Bestalde, hasierako proiektuan hamar gela aurreikusten baziren ere, bi oso txiki geratzen ziren; hortaz, eta taldeetako ordezkariekin jardun eta gero, erabaki genuen zortzi egitea. Geletako bakoitza hiru talderen artean partekatuko dute.

**Umeendako ekitaldi asko dago eta gurasoak pozik. Eta edadetuendako? Mendekosteetan, behintzat, kexua jaso zenuten.**

Zinemari dagokionez, ume zein helduendako bina emanaldi daude eta gainerako ikuskizunetan, berdin. Zabalotegin saiatzen gara oreka mantentzen.

Mendekoste jaietan iritsi zitzaigun kexua edadeko pertsonendako gauza gutxi antolatu genuela. Jai batzordean saiatzen gara guztiendako ekitaldiak antolatzen, baina egia da ez dagoela edadeko pertsonarik batzordean eta egitaraua begiratuz gero, ez zegoela haiendako bereziki antolatutako ikuskizunik. Aurtengo Pazkoetan saiatuko gara hori konpontzen.

**Urte berriak ekarriko du aldaketarik Zabalotegira?**

Asmoa da azken hilabeteetako dinamikarekin jarraitzea. Gure helburua beti izan da hilabeteko eguen eta egubakoitz guztietan eta lehenengo aste bukaeran ikuskizunen bat egotea eta hileko hiru aste bukaeratan zinema emanaldiak egotea. Ez dugu Zabalotegi zinema areto soil bihurtzerik nahi.

Dinamika horrekin jarraituko dugu Mendekosteak arte. Hor bukatu egingo dira zinema emanaldiak eta gainerako ikuskizunak kalera ateratzen saiatuko gara san Martinak bitartean.

LEHIAKETA > ARATUSTEETAKO AZALA

## Aratusteetako azala lehiaketara atera dute

Epaia jakitera ematerakoan esango dute nortzuk osatu duten epaimahaia

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Udalak lehiaketara atera du 2009ko aratusteetako jai egitarauko azala. Lanak otsailaren 3an, 13:00ak baino lehenago aurkeztu beharko dira kultura etxean. Diseinuen kartelak, kolore eta teknika libreaz egin ahal dira eta 40x60 zentimetroko kartoizko oinarri baten aurkeztu beharko dira, formatu bertikalean. Gainera informatika diskete batean ere aurkeztu beharko dira.

**350 EUROKO SARIA**

Lehiaketako irabazleak 350 euroko saria eskuratuko du; baina, saria eman gabe ere geldi daiteke. Epaia jakitera ematerakoan esango dute nortzuk osatu duten epaimahaia. Bestalde, epaimahaiak hartutako erabakia aldaezina izango da.

IKASTAROAK > EUSKARA

## Jendaurrean lan egiten dutenentzat ikastaro berezia

Udalak eta Udal Euskaltegiak antolatuta 60 orduko ikastaroa izango da

A.E. > BERGARA

Jendaurrean lan egiten dutenentzat ikastaro berezia antolatu dute Udalak eta Udal euskaltegiak HABErekin elkarlanean. 60 orduko oinarrizko euskara ikastaroa izango da.

Ikastaroaren helburua bezeroen eskariak ulertu eta oinarrizko elkarrizketetan euskaraz erantzuteko gaitasuna lortzea da. Erabiliko den metodologia eta materiala zerbitzuetan lan egiten dutenentzat da egokia.

**OTSAILA-APIRILA**

Otsailaren 10etik apirilaren 30era izango da ikastaroa; sei ordu astean. Izena urtarrilaren 28ra arte eman ahalko da Udal Euskaltegian. Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa da.

> HAUTESKUNDEAK

### Demokrazia 3 milioi hautesle elkargoari babesa emateko sinadurak hartuko dituzte astean

Herritar talde batek Legebiltzarrerako hauteskundeetan esku hartzeko hautesle elkargoa osatu gura du. D3Mri (Demokrazia 3 milioi) babesa emateko, hilaren 14tik 24ra sinadurak eman daitezke udaletxean (astelehenetik egubakoitzera 12:00etatik 14:30era eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan 11:00etatik 14:00etara) edo notaritzan 10:00etatik 13:00etara eta eguaztenetan baita 16:00etatik 17:30era ere.

> ZOZKETA

### Bedelkarren Gabonetako zozketako zenbaki sarituen artean denera 3.000 euro banatuko dira

Urtarrilaren 7an egin zuten Bedelkarreko zozketa eta honako hauek izan dira zenbaki sarituak: 4.611 zenbakiak Bedelkarreko dendetan gastatzeko 1.000 euroko erosketa txartela eskuratuko du; 9.904 zenbakiak, 500 eurokoa; 68.662 zenbakiak beste 500 euroko bat; 36.353 zenbakiak 250 euroko erosketa txartela; 46.487 zenbakiak ere, 250 euroko erosketa txartela; 71.236 zenbakiak 250 euroko erosketa txartela eta 88.357 zenbakiak azken 250 euroko erosketa txartela.

> ZOZKETA

### San Joxepeko zozketako hirugarren zenbaki saritua 0.076 da eta oraindik ez da irabazlerik agertu

San Joxepeko Gabonetako zozketako lehen zenbaki saritua –otarre bat– eta bigarrena ere atera ziren, baina hirugarren saria kostatzen ari da eta oraindik ez da atera (0.076 zenbakia). Saritua San Joxepeko egoitzara zuzendu daiteke saria jasotzeko: sukaldeko tresnak jasoko ditu sari moduan.

**UDALA** > OHIKO OSOKO BILKURA

# Udal finantziazioen gaineko mozioa onartu dute

Aho batez onartu zuen udalbatzak abenduaren 22an Aitor Goiti zinegotziak aurkeztutako mozioa

Hiru Foru Aldundiek eta Lakua eta Iruñeako Gobernuek harturiko azken neurrien aurkakoa da

JASONE ZABALA > BERGARA

Abenduaren 22an egin zen osoko bilkuran udalbatzak aho batez onartu zuen Aitor Goiti zinegotziak aurkeztutako mozioa: hiru Foru Aldundiek eta Lakua zein Iruñeako Gobernuek harturiko azken neurrien aurkako mozioa, hain zuzen ere. Aurkeztutako mozioan adierazten da hartutako neurri horiek udal finantziazioa kolokan jartzen dutela eta Aldundiek Udalei dirua bueltatzea eskatzen diotela, ondorioz hurrengo urterako finantziazioa murriztuz. Honek egoera gaiztotu besterik ez duela egiten dio eta benetako arazoa toki erakundeen finantziazio sisteman dagoela: hau da, beste instituzio batzuk erabakitzen dutelako udal bakoitzari erabakitzea dagokion finantziazioa. Egoera horrekin guztiarekin–dio mozioak– "herriko ekimen eta politikak erabat baldintzatuta gelditzen dira", inoiz ez dakitelako udalek noraino izango duten diru laguntza bat edo ez. "Argi" utzi gura duten beste puntu bat da "Aldundiak eta Lakuako zein Iruñeako gobernuek erabaki dituzten finantziazio murrizketak ez direla krisiaren ondorio bat". Zerga bidez gutxiago jaso baldin badute beraiek bultzatu dituzten zerga aldaketen ondorioz izan dela ere adierazten du mozioak. Horregatik guztiagatik finantziazio justua eta nahikoa exijitzen dute "Udalak krisiaren aurrean eragile aktiboago bilakatuz".

**BOST PUNTU**

Goitik aurkeztutako mozioak bost puntutan laburtzen du EAEko Aldundiek eta Lakua eta Iruñeako gobernuei eskatzen dizkien erantzukizunak: "Batetik, Gipuzkoako Toki Erakundeen finantziazio justua eta nahikoa exijitzea Aldundiari. Bestalde, Udala bere autonomia eta eragiteko esparrua aldarrikatzera behartuta dago; hirugarrenik, Udalari Foru Gobernuak diru kopuru handi bat bueltatzea eskatzen diola ikusita, adierazten da ezinezkoa zaiola diru hori itzultzea herritarrei eman beharreko zerbitzuak kolokan jartzen direlako; laugarrenik, 2009ko finantziazioa, gutxienez 2008ko urtarrilean zehazturiko parametroetan mantentzea eskatzen du; azkenik, onartutakoa herritarrei eta komunikabideei jakinaraztea az gain Gipuzkoa Foru aldundiari helaraztea" eskatzen du.

**ZERBITZUAK** > TURISMO BULEGOKO 2008KO DATUAK

# 2.846 pertsona pasatu ziren iaz Udal turismo bulegotik

Gipuzkoarrak, madrildarrak eta kataluniarrak izan ziren gehienak

J.Z. > BERGARA

Herriko Udal turismo bulegoa hiru epetan izan da zabalik joan den urtean: Aste Santuaren denboraldia – martxoaren 10etik apirilaren 6ra –, udako denboraldia– maiatzaren 19tik urriaren 5era – eta abendua hasieran – abenduaren5etik 9ra–. Guztira 2.846 pertsona pasa dira bertatik. Halaxe adierazi digu Xabier Aranburu Udaleko turismo teknikariak.

**KANPOTIK 1.800 PERTSONA**

Turismo bulegotik pasa diren guztietatik kanpotik etorri direnak 1.759 izan dira, eta bergararrak, berriz, 1.087.

Datuei dagokionez eta aurrez aipatutako hiru epetan banaturik, Aste Santuan 403 pertsona izan dira bulegora informazio bila joan direnak, eta leku guztietakoak gainera: Euskal Herritik, Espainiatik – gehien Madril (12 pertsona) eta Kataluniatik (61 pertsona)–, Europatik eta munduko beste leku batzuetatik ere.

Uda partean, turismo bulegoak 2.339 pertsonei eman die zerbitzua. Kasu honetan gehienak Bergarakoak izan dira (864 pertsona). Azkenik, eta abenduko jai egunak kontutan hartuta, denera 104 pertsona pasa dira turismo bulegotik. Kasu honetan ere gehienak herrikoak izan dira (63 pertsona).

**BISITA GIDATUAK**

Udal turismo bulegoan izan diren 2.846 pertsonetatik, 561ek egin dute bisita gidatua. Guztira egin dira 83 bisita gidatu. Aste Santuan sei egin ziren eta haietan 61 pertsonek esku hartu zuten. Hizkuntzari dagokionez, lau euskaraz eta bi gaztelaraz egin zituzten. Udan, berriz, 72 bisita gidatu egin ziren, eta horietan 447 pertsonak hartu zuten parte. Hizkuntzari dagokionez, sei euskaraz, 56 gaztelaraz eta 10 ingelesez egin zituzten. Abenduan zehar, berriz, gidatutako bost bisita egin zituzten, horietan 53 pertsona izan ziren eta bi euskaraz eta hiru gazteleraz.Bisitari kopurua nahiko altua izan zen, kontutan hartuta eta Aranburuk adierazi digun bezala "hainbat domeketan turismo bulegoa itxita egon dela –ekaineko eta uztaileko igande gehienetan, aldiz, abuztuko domeka denetan zabalik egon zen eta baita ofizialki jaiegunak izan ziren martxoaren 19 eta 20an ere", adierazi digu.

## 2008ko turismo bulegoko datuak

| | |
|---|---|
| ASTE SANTUA | 403 |
| Bergarakoak | 160 |
| EAE | 119 |
| Nafarroa | 13 |
| Espainia | 89 |
| Europa | 16 |
| Gainontzekoak | 6 |
| UDA | 2.339 |
| Bergarakoak | 864 |
| EAE | 518 |
| Nafarroa | 14 |
| Espainia | 639 |
| Europa | 238 |
| Gainontzekoak | 66 |
| ABENDUA | 104 |
| Bergarakoak | 63 |
| EAE | 17 |
| Nafarroa | 7 |
| Espainia | 13 |
| Europa | 4 |
| **GUZTIRA** | **2.846** |

ITURRIA: BERGARAKO UDALA



MANU HERRAN

# Bergara K.E.koak Irimora igo ziren urtea agurtzeko

Joan den abenduaren 28an Bergara kirol elkarteko futbol saileko lehen erregionaleko jokalariak eta zuzendaritzako kideak Irimora igo ziren urteari agur esateko. Motxila turroiez eta xanpainaz beteta eraman zuten. Ondoren Gorla elkartean hamaiketako ederra egin zuten indarberritzeko.



PEDRO GARITANO

# Hiru lagun Ponferradatik Santiagoraino

Joan den abenduaren 25ean hiru bergarar –Jesus Mari Barrutia, Pedro Garitano (72 urte) eta Anton Barrutia– Ponferradatik Santiagora bitarteko bidea egiten hasi ziren oinez, eta urtarrilaren 2an amaitu zuten. Ponferradara arteko bidea aurretik zatika egina zuten. Garitanok Santiagoko bidea egiten zuen lehen aldia zen eta Anton Barrutiak, berriz, bigarrena. Esperientzia oso ona izan zela adierazi digute, nahiz eta zero azpitik zortzi gradutara arteko hotz-beroak izan zituzten.

Astelehenetan eta martitzenetan egongo dira Aloña Mendi tabernan, 18:00etatik 19:30era

Pazko asteko irteera Cerviniara egingo dute eta aste bukaerakoak Baqueira-Beretera

**KIROLA** > ESKI IRTEERAK

# Eski irteeretarako izenematea gaurtik aurrera egin daiteke

**MIREIA BIKUÑA**> OÑATI

Aloña Mendi eski saileko arduradunak gaur bertan hasiko dira irteeretarako izenak jasotzen. Hain zuzen, astelehenero eta martitzenero egongo dira Aloña Mendi tabernan 18:00etatik 19:30era.

**PAZKO ASTEAN, ALPEETARA**

Guztira, lau egingo dituzte: hiru aste bukaerakoak izango dira –egubakoitzetik domekara arte–, eta azkena, astebetekoa.

Aste bukaerako lehen irteera urtarrilaren 23tik 25era egingo dute; bigarrena otsailaren 20tik 22ra; eta hirugarrena 20tik 22ra. Autobusak egubakoitz arratsaldean irtengo dira Oñatitik, eta domekan itzuliko dira eskiatu ondoren. Aste bukaerako egonaldia Baqueira-Bereteko Hipic hotelean egingo dute. Eski saileko arduradunek izena ematerakoan zehaztuko dituzte irteeretako prezioak. Irteera bakoitzeko plazak izenemate zerrenda errespetatuz banatuko dituzte.

Denboraldia bukatzeko, astebeteko irteera egingo dute pazko astean; hain zuzen ere, apirilaren 11tik 18ra. Lehen aldiz, Alpeetako Cervinia-Zermatt eski estazioetara egingo dute astebeteko irteera. Bi estazioak erremonte bidez daude lotuta. Guztira, pistetan 400 kilometro dituzte eskiatzeko, eta pistatik kanpo, beste 38 kilometro.

**FORFAITAK, MERKEAGO**

Aloña Mendi eski sailekoek Pirinioetako eski estazioekin zuten hitzarmena berretsi dute. Horren harira, Aloñarekin edo euren kontura Astuneko, Candanchuko edo Formigaleko eski estazioetara doazenek forfaitak merkeago eskuratu ahalko dituzte: Astunen eta Candanchun lau euro merkeago, eta Formigalen sei euro.

Forfaitak bi urteko balioa dute, eta interesatuek Oñatiko Mendizabal kirolak dendan eros ditzakete.

**ZERBITZUA**

## Suradesako zerbitzua martitzenetan udaletxean

**M.B.** > OÑATI

Duela 21 urte sortutako Suradesa elkarteak martitzenero ematen du zerbitzua Oñatiko udalean. Orain arte, udaletxeko lehen solairuan eman du zerbitzua, baina aurrerantzean bigarren solairuan egongo da teknikaria 09:45etik 13:00etara arte.

**LANAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK**

Suradesa elkarteak etxebizitzak zaharberritzeko Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzak bideratzen ditu. Etxeko edozein obra egiteko laguntza eska daiteke: alde batetik etxe barrukoak (sukaldea, bainu-gela, leihoak...); eta beste alde batetik, kanpoaldekoak.

Eusko Jaurlaritzarn dirulaguntzak eskatzeko Suradesak emandako eskaera-orria bete behar da lanak egiten hasi aurretik.



MIREIA BIKUÑA

## Lurra mugituta, zuhaitzaren sustraiak bistan

Udazkenean bota duen euriaren ondorioz, Kanposantuko bideko lurra mugitu egin da. Ondorioz, han dauden zuhaitzetako batzuen sustraiak bistan geratu dira. Udaltzaingoak pibotak eta babeserako zintak jarri ditu. Udalaren asmoa da errepidea konpontzea 2010eko martxorako. Oinezkoen bideari eusteko, egoera txarrean dagoen hormaren aldamenean ezponda egingo dute, zuhaitzak mantentzeko. Ezpondaren aldamenean errepide berria egingo dute, eta ondoan jolas parkea.

> HITZALDIA

## Unibertsitateko ikasketen gaineko berbaldia ikastolan

Mondragon Unibertsitateko ikasketen eskaintzaren gaineko hitzaldia egingo dute Txantxiku Ikastolan bihar, 18:30ean. ETEOko, Goi Eskola Politeknikoko eta HUHEZIko kideek egingo dute berba ikastolako aretoan. Hitzaldia Batxilergoko Lehen eta Bigarren mailetako ikasleendako eta horien gurasoendako da. Dena den, irekia izango dela diote arduradunek.

> IKASTAROA

## Oinarrizko GPS ikastaroa egingo dute gaztelekuan

Aloña Mendi elkarteko mendi taldeak antolatuta, GPS eta ordenagailua erabiltzen ikasteko ikastaroa egingo dute gaztelekuan urtarrilaren 20an eta 22an, 19:00etatik 21:00etara. Helburua GPS sistemaren oinarrizko kontzeptuak eta Compe GPS programa lantzea da. Bestalde, ikastaroan landutakoa praktikan ipintzeko irteera egingo dute hilaren 25ean.

> INFORMATIKA

## Gaurtik Interneteko oinarrizko ikastaroa KZgunean

Bi ikastaroa hasiko dituzte bihar KZgunean: alde batetik, Interneteko oinarrizko ikastaroa emango dute hilaren 23ra arte; eta beste alde batetik, E-administrazioa delako ikastaroa emango dute. Ikastaro honetan, besteak beste, sinadura elektronikoa, eta hainbat erakunde publikok eskaintzen dituzten zerbitzuak azalduko dituzte. Informaziorako 943-7183 20 zenbakira dei daiteke.

Body combat, body jam, body pump eta body balance modalitateak ezagutzeko aukera eskainiko dute

**KIROLA** > ZUBIKOA KIROLDEGIAN

# Ate irekien astea egingo dute kiroldegian hilaren 19tik 23ra

**M.B.** > OÑATI

Ikasturte hasieran bezala, ate irekien jardunaldiak egingo dituzte Zubikoa kiroldegian. Hain zuzen ere, hilaren 19tik, astelehena, hilaren 23ra, egubakoitza, egingo dute. Egun horietan ikastaroetan parte hartzeko aukera izango dute herritar guztiek, bazkide direnak eta ez direnak.

**LAU MODALITATE**

Body combat, body pump, body balance eta body jam ezagutzera eman gura dute kiroldegiko arduradunek. "Pentsatu dugu kirolak gertutik ikustea dela onena ikastaroetan izena eman aurretik, eta horregatik eskolak zelan ematen ditugun erakutsi gura dugu", esan digute arduradunek.

Pilates eta yogan oinarritutako body balance ezagutu gura dutenek hiru aukera izango dituzte: hilaren 19an 20:15ean; hilaren 20an 18:15ean; eta hilaren 21ean 10:15ean. Askotariko estiloetako dantzak lantzen dituen body pump ezagutzeko lau ordutegi dituzte: hilaren 19an 20:15ean; hilaren 20an 19:15ean; hilaren 22an 18:15ean; eta hilaren 23an 10:15ean. Body pump eskolak hilaren 20an 19:15ean, eta hilaren 22an 18:15ean emango dituzte. Azkenik boxeo eta arte martzialetako mugimenduak konbinatzen dituen body combat zer den ikusteko aukera bakarra izango dute interesatuek; hain zuzen ere, hilaren 21ean 10:15ean.



Liburutegi zaharreko eraikinean egokitzapen lanak egin behar izan dituzte, sail berriak hartu ahal izateko. GOIENKARIA

**ARETXABALETA** > HIRIGINTZA ETA ONGIZATE SAILAK TOKIZ ALDATU DIRA

# Eguaztenetik liburutegi zaharrean daude lanean

Beheko solairuan dagoen harreran hartuko dituzte herritarrak; langileak izango dira mugituko direnak

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Urte berriak aldaketa ekarri du Udalera. Hirigintza eta Ongizate sailak tokiz aldatu dira: udaletxetik lehen liburutegia zegoen eraikinera eraman dituzte. Eguaztenean egin zuten leku aldaketa eta dagoeneko normaltasunez dihardute lanean. Guztira, zortzi langile daude han: hiruna gizarte laguntzaile eta hirigintza teknikari, zerbitzu eta lanetako arduraduna eta hirigintza administraria.

Herritarrek igarriko duten aldaketa bakarra da fisikoki tokiz aldatu direla. Telefono bera mantendu dute, udaletxekoa. Bulego berriak, gainera, aurrekoak baino erosoagoak dira herritarrendako, langileak direlako bere tokitik mugitu eta eurengana doazenak. Horretarako bilera gela bat egokitu dute beheko pisuan.

Gela horretaz gain, beheko solairuan harrera, Ongizateko bi bulego eta komunak daude. Lehenengo solairuan, berriz, Hirigintzako lau bulego eta gizarte laguntzailearena daude.


ARETXABALETAKO KULTURA SAILA

## Erakusleihoen saria Kimuak dendak lortu du

Gabonetako erakusleiho lehiaketak baditu dagoeneko irabazleak. Kimua loradendak izan du aurtengo erakusleiho ederrena. Irabazleak 250 euro eta garaikurra lortu ditu. Bigarren Lie lurrindegia eta hirugarren Martín erloju denda izan dira. Horiek 150 eta 100 euro irabazi dituzte, hurrenez hurren. Guztira, aurtengo edizioan hamar dendek parte hartuko dute. Irudian, Kimua dendako Mari azaltzen da. Pozik daude sariarekin. Horren harira, gogorarazi dute azken bi urteotan hirugarren geratu direla.

**ESKORIATZA** > ESTATU ESPAINIARRAREN DIRU LAGUNTZA

# EAJ, EA eta EB udal taldeek agiri bateratua egin dute

2009rako ezohiko inbertsioetarako hainbat proposamen jasotzen dituen agiria aurkeztu dute batzordean

**MIRIAN BITERI**> ESKORIATZA

EAJ, EA eta EB-Berdeak taldeek aurtengo ezohiko inbertsioen kontura proposamen bateratua adostu dute. Espainiako Gobernuko Administrazio Publikoak Udalari 700.520 euro emango dizkio aurten. Abenduan Udalak kontsulta egin zuen herritarren artean, diru kopuru horretarako ideiak jasotzeko. Urtarrilaren 7an batzordea egin zuten horren gainean jarduteko.

Esandako taldeetako ordezkariek, esan bezala, euren proposamena aurkeztu dute batzordean. Irizpide nagusien atalean, udal ordezkarien arabera, Udalak bizi duen egoera ekonomikoa kontuan hartuta, mantenu gastuen eta kostu energetikoen murrizketa ahalbideratzeko proiektuak bultzatu beharko lirateke. Gainera, lan sustapenaren helburua eraginkorra izan dadin udalerrian helbideratutako enpresen esleipenei lehentasuna ematea eta esleituko diren lanen baldintza pleguetan langabezian dauden pertsonen kontratazioa exijitzea proposatu dute.

**PROIEKTU ZEHATZAK**

Proiektu zehatzei dagokionez, argiteri publikoan zein udal bulegoetan inbertsioak egitea, berrurbanizatu gabeko auzoetan ur hornikuntzak hobetzea eta hiri hondakinen edukiontziak lurperatzea eskatu dute.

Horra hor, bestalde, ekipamendu sozialen arloko eskakizunak: Luis Ezeizako jolastokiaren estaldura, Aranburuzabala kaleko haur jolastokia eraberritzea eta Intxartxueta 14 eta 20 zenbakien arteko aparkalekua handitzea. Hiriberritze eta Berrurbanizazio planaren barruan, San Pedro 9ko irtenbide berriko inguruaren bukaera, Dorleta 18 bidearen exekuzioa, Hidalga 20-21 zenbakietako atzealdearen hobekuntza eta Intxaurtxueta auzoko urbanizazioaren eraberritzea eskatu dute, besteak beste.

Azkenik, elizateetara diru laguntzaren %10-15 bideratzea proposatu dute.

> ESKORIATZA

### Bihar, martitzena, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariek udalerria bisitatuko dute

Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano eta Kultura eta Euskara diputatu Maria Jesus Aranburu Eskoriatzan izango dira bihar. Harrera ekitaldiari 12:30ean emango diote hasiera udaletxeko plenoaretoan eta jarraian, herriko zenbait toki bisitatuko dituzte: bidegorriko obrak, Huhezi edo zine zaharreko eraikina, besteak beste.

**ANTZUOLAKO UDAL ETXEGINTZA, S.A**

**LIZARRAGA KALEKO 9KO LEHENENGO PISUKO EZKERREAN KOKATUTA DAGOEN ETXEBIZITZAREN SALMENTA PROZEDURA IREKI (ENKANTE) BIDEZ**

**Lehiaketaren oinarria:** 202.759,37 € izango da onartuko den gitxiengo eskeintza, lizitatzaileek oinarri hau gorantza hobetu ahal izango dutelarik.

**Behin behineko bermea:** 6.082,78 €.

**Proposamenak aurkezteko azken eguna**: 20 egun iragariki hau Gipuzkoako Aldizkarian publikatu osteko egunetik hasita, (2009ko urtarrilaren 08an publikatu da).

**Dokumentazioa**: Antzuolako Udal Etxegintza S.A ren bulegoetan, Antzuolako Udaletxean; Herriko Plaza 8an (10etatik 14etara)

*Antzuolan 2009ko urtarrilaren 08an*
*Presidentea*

**Maite Odriozola** > Erizaina

# "Gaixotu berdin-berdin gaixotzen badira ere, elgetarrak gogorrak dira benetan"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

**Nestor Maidagan 15 urtez egon da Elgetan erizain eta Arrasatera aldatu denez Maite Odriozola oñatiarrak hartu du bere lekua. Arrasateko eta Mendaroko ospitaletatik eta Elgoibarko osasun zentrotik pasa ostean iritsi da Elgetara.**



Orain dela hilabete hasi zen Elgetan lanean Maite Odriozola. LARRAITZ ZEBERIO

**Orain arte zein izan da zure ibilbidea erizain lanean?**

Arrasateko ospitalean hasi nintzen eta 11 urte eman nituen han; Mendaroko ospitalean beste hiru urte; eta Elgoibarko osasun zentroan bi urte eta erdi eman ostean, beste zortzi hilabetez, berriz, Mendaroko ospitalean jardun dut. Orain plaza eskuratuta Elgetan nago.

**Nolako harrera egin dizute Elgetan?**

Ona. Jendea lehengora ohituta egon arren, kontsultan sartu orduko egiten didate harrera hitzen bat. Orain elkar ezagutu behar dugu denok eta ikasi behar dugu elkarrekin lan egiten.

**Elgeta moduko herri batean jarduteak badu berezitasunik?**

Jendea oraindik ez dut ia ezagutzen eta nahiko erraz gertatzen ari zait lana. Niretzat denak dira oraingoz ezezagunak eta denak berdinak; hutsetik hasi behar dut jendea etorri ahala ezagutzen. Elgoibarren lehen mailako arretako erizain moduan jardun nuen eta orduan ikasi nuen apur bat eta lana antzerakoa da. Hala ere, jendea da ezberdina, elgetarrak gogorragoak dira. Gaixotu berdin-berdin gaixotzen dira, baina igartzen da baserri girokoak direla eta ohituta daudela bizimodua euren kabuz aurrera ateratzen. Kalekumeok apur bat samurragoak gara. Bestalde, herria txikia izan arren ezagutzen dihardut pixkanaka. Galdetu behar izan diot jendeari etxeren edo kaleren baten berri. Udaletxean ere egon naiz plano bila, izan ere, baserriak non dauden ere jakin beharra dago.

**"Jendea lehengora ohituta egon arren, kontsultan sartu orduko denek egin didate harrera hitzen bat"**

**Kontsultan bakarrik ez duzue lan egiten, ezta?**

Baserrietara eta etxeetara joaten gara beharrak eskatuz gero. Gainera, astean hirutan Angiozarrera joaten gara: astelehenetan eta barikuetan 13.00etatik aurrera eta eguaztenetan 10:00etatik 13:00etara. Horren eta irteeren arabera ordutegia moldatzen dugu. Gainontzean Elgetan egunero egoten gara 08:00etatik 15:00etara bitartean.

**LEINTZ GATZAGA** > ZERBITZUAK

# Medikua astean behin bakarrik etorriko da herrira asteon hasita, eguazten eguerditan

Zerbitzua hobetzeko hartutako erabakia da; astean behin Gatzagan izango da herritar guztien zerbitzura ziurtatu asmoz

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Orain arte astean bi aldiz pasatzen zuten medikuaren kontsulta Gatzagan, baina aste honetatik aurrera behin bakarrik egingo dute: eguaztenetan, 12:00-etatik 13:00etara bitartean. Horretarako, baina, txanda aurrez hartu beharko dute herritarrek Eskoriatzako osasun etxera deituta (943 71 44 52). Lehen legez, udaletxeko beheko solairuan dagoen bulegoan pasatuko du kontsulta.

Orain arte astean bi kontsulta pasatzen zituzten: martitzenetan eta egubakoitzetan. Martitzenetan mediku bat etortzen zen eta egubakoitzetan beste bat; eta herritarrek zein medikurengana joan aurretik izendatuta zeukaten. Hemendik aurrera, eguaztenetan datorren medikuak herritar guztiak hartuko ditu. Bi medikuak txandaka etorriko dira, aste baten bata eta hurrengoan bestea.

**ZERBITZUA HOBETZEKO**

Udaleko eta Eskoriatzako osasun etxeko arduradunek elkarrekin hartutako erabakia da. Itxura baten zerbitzu murrizketa iruditu arren baten bati, zerbitzua hobetzeko erabakia izan gura du. Izan ere, astean behin bakarrik etor zitezkeen gatzagarrak dagokion medikuarengana –aurrez izendatutakoa– orain arte ere, eta medikua agertu ezean –Eskoriatzan lan asko zutelako gertatu izaten zen– hurrengo astera arte itxaron behar zuten. Hartutako erabakiarekin, astean behin mediku bat izango dela Gatzagan, herritar guztien zerbitzura, ziurtatu dute.

**ARAMAIO** > IPUIN KONTALARIAK

# Gaztetxoak gustura egon ziren zapatuan ipuinak entzuten

'Hiri mestizua' erakusketarekin lotuta, zapatuan, 'Kandelen argipean' ipuin kontaketa egin zuten Aramaioko kultura etxean

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Domekan ipini zuten azkeneko aldiz, udaletxeko arkupetan, *Hiri mestizua* erakusketa. Zaragozako Convive gobernuz kanpoko erakundea da erakusketaren arduraduna, eta 20 argazki inguru ikus zitezkeen. Helburua zen herritarrei desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten arrazoien inguruan hausnarketa bat egin araztea. Horrez gain, herritarrei beste herrialde batzuei laguntzeko dauden programetan parte hartzeko informazio eman nahi zitzaien.

Helburu horretarako, baina, ez dute erakusketa bakarrik erabili. Izan ere, zapatuan, umeendako ipuin kontalariak izan ziren kultura etxean, eta *Kandelen argipean* ikuskizuna eskaini zuten. Umeak adi-adi egon ziren beste herrialde batzuetako pertsonaien istorioak entzuten.

Gainera, eta erakusketarekin lotuta, aste honetan tailerrak egingo dituzte. Eguneean eta barikuan izango da hori. Umeek euren izena arabieraz idazten ikasiko dute, besteak beste.



'Kandelen argipean' kontaketa izan zen zapatuan kultura etxean ANA MUNOA

**ANTZUOLA** > ETXEBIZITZA

# Lizarraga kaleko etxe bat enkantera aterako dute

Interesatuek 202.759,37 euroko eskaintza egin behar dute gutxienez

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Antzuolako Udal Etxegintzak herriko etxebizitza baten salmenta prozedura zabaldu du enkante bidez.

Etxebizitza Lizarraga kaleko bederatzigarren zenbakian dago; lehenengo solairuko ezkerrekoa da, hain zuzen ere.

Etxebizitza hori enkantera ateratzearen arrazoia azaldu digu Pedro Iturbe alkateak: "Eguzki auzoan egin ziren 20 etxebizitza tasatuetariko bat gaitasun murriztuak dituzten bikote bati egokitu zitzaion izena eman zutenen artean eta eurekin trukea egin zen: etxebizitza berria, zaharraren truke. Izan ere, etxebizitza zaharrean ez zeukaten igogailurik eta irisgarritasun arazoak zeuzkaten". Hortaz, orain abiatuko duten prozesu honekin asmoa da tasatuaren truke emandako etxebizitza hori saltzea.

Onartuko den gutxieneko eskaintza 202.759,37 eurokoa da eta hortik gora eskaintza hobetzeko aukera egongo da. Eman beharreko behin behineko bermea 6.082,78 eurokoa izango da eta behin betikoa adjudikazioaren %5ekoa, kopuru guztiak BEZ barne.

**ESKARIAK UDALETXEAN**

Proposamenak aurkezteko epea urtarrilaren 28ra artekoa izango da eta interesatuek dokumentazioa Antzuolako Udal Etxegintzaren bulegora, udaletxera, eraman beharko dute 10:00etatik 14:00etara bitartean.




**> FUTBOLA**
Antzuolaren aurka galdu zuen Bergarak ligako lehen partidua (1-2) **> 24**





**> ESKUBALOIA**
Ford Mugarrik 26-28 galdu zuen Portugaleteren aurka Iturripen **> 25**



**> ZIKLO-KROSA**
Atenasko Joko Olinpikoetan zilarreko domina eskuratu zuen Jose Antonio Hermidaren egin dugu berba. Osintxuko proban hirugarren tokian sailkatu zen **> 27**




**FUTBOLA** > PREFERENTE MAILA

# Penalti eztabaidagarriari esker puntuak Oñatira

Hiru puntuei esker Aloña sailkapeneko hirugarrena da UDArekin berdinduta

UDA
**0-1**
ALOÑA

**UDA** > Asier, Raul, Alain, Ruben, Astola, Gotzon (Iñaki, 84. min.), Imanol, Aritz, Oinatz (Iker, 51. min.), Lopez (Arkaitz, 62. min.) eta Espinosa.

**Aloña** > Ilñigo, Aritz (Julen, 56. min.), Jon, Roberto (Mikel 86. min.), Unai, Asier (Arregi, 81.min.), Palacios, Elgarresta, Aitor, Iker eta Ioritz.

**Epailea** > Azpilikueta jauna. Penalti eztabaida garria adirazi zuen Aloñaren alde, eta Ibarrako zaleek behin eta berriz ohiukatu zuten epailearen aurka.

**Bestelakoak** > Oñatiko zale ugari bildu zen Ibarra futbol zelaian Aloña eta UDAren arteko derbia ikustera. Preferentea mailako lehen itzuliko azken partidua jokatu zuten atzo.



Aritz Garmendiak lehiako lehen aukera izan zuen lehen zatian, baina atezainak geratu zuen baloia. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > ARETXABALETA

Azpilikueta epailea izan zen UDAk eta Aloñak atzo Ibarra futbol zelaian jokatutako derbiko protagonistetako bat. Atsedenaren aurretik adierazi zuen penalti eztabaidagarriak erabaki zuen derbia. Aloñako jokalari Ioritz ez zen heldu buruz errematea egitera, eta lurrera erortzen zela ikusirik penalti adierazi zuen epaileak, berehala. UDAko jokalariek eta zaleek biziki protestatu zuten epailearen erabakia. Penaltia aprobetxatu zuen Unai Arregik partiduko gol bakarra egiteko.

Ordurako, baina, Aloña hamar jokalarirekin zegoen. Bi jokalditan (lehena nahiko eztabaidagarria) txartel horiak ikusi zituen Aitor Lopezek.

Bi taldeak hamaikana jokalarirekin egon ziren artean, oñatiarrek menderatu zuten partidua zelai erdian. Gainera, goiko lerroetan Asierren eta Robertoren azkartasuna aprobetxatu zuten gol aukerak egiteko; baina, azken metroetan huts egin zuten.

**ARETXABALETARRAK, AMORRUZ**

Atsedenaren ondoren, amorru biziz irten ziren aretxabaletarrak zelaira. Hasierako minututan estutu egin zuten zelai erdian, eta partidua menderatu zuten. Egoera ikusirik Aloñako entrenatzaileak lehen aldaketa egin zuen, zelai erdiko jokoa indartzeko: Barrena zelairatu zuen Garmendiaren ordez.

Aldaketarekin Aloñaren jokoa hobetu egin zen, eta berriro hartu zion neurria lehiari. Gainera, Ugartek aukera paregabea izan zuen 58. minutuan bigarren gola egiteko; baina, UDAko atezain Asierrek hankekin geratu zuen baloia. Aretxabaletako taldeak ere izan zuen aukerarik partidua berdintzeko, baina jokalari bat gehiagorekin jokatu arren, ez zuten asmatu.

Penaltiari buruz galdetu genion partidu bukaeran Aloñako jokalari Unai Arregiri: "Egia esan, ez dut jokaldia oso ondo ikusi. Epaileek batzutan kendu egin digute, baina gaur gure aldeko erabakia hartu du eta aprobetxatu egin dugu". UDAko jokalari Jonan Elgarrestak aldiz, penaltia ez zela izan esan zigun.

**GOIKO POSTUETAN**

Aloñaren garaipenak eta Tolosaren berdinketak asko estutu dute preferente mailako sailkapena. Aloñak eta UDAk 31na puntu dituzte, Hondarribia liderrak baino bi puntu gutxiago.

## emaitzak eta sailkapenak

**PREFERENTE MAILA**

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Hondarribia** | **33** | 17 |
| 2. **Tolosa** | **32** | 17 |
| 3. **Aloña Mendi** | **31** | 17 |
| 4. **Aretxabaleta** | **31** | 17 |
| 5. **Real Union** | **29** | 17 |
| 6. **Trintxerpe** | **28** | 17 |
| 7. **Pasajes** | **28** | 17 |
| 8. **Berio** | **28** | 17 |
| 9. **Hernani** | **27** | 17 |
| 10. **Idiazabal** | **25** | 17 |
| 11. **Aurrera** | **21** | 17 |
| 12. **Mondra.** | **20** | 17 |
| 13. **Zumaiako** | **17** | 17 |
| 14. **Euskalduna** | **17** | 17 |
| 15. **EHU Vasconia** | **14** | 17 |
| 16. **Astig. Mundarro** | **12** | 17 |
| 17. **Anaitasuna** | **10** | 17 |
| 18. **Amaikak Bat** | **10** | 17 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Amaikak Bat-Hondarribia | 2-3 |
| Zumaiako-Real Union | 4-0 |
| Hernani-EHU Vasconia | 3-1 |
| Trintxerpe-Pasajes | 1-1 |
| EUskalduna-Berio | 1-2 |
| Aretxabaleta-Aloña Mendi | 0-1 |
| Idiazabal-Mondra | 2-0 |
| Astig. Mundarro-Tolosa | 2-2 |
| Aurrera-Anaitasuna | 0-0 |

**Hurrengoak**

Amaikak Bat-Aurrera
Tolosa-Anaitasuna
Astig. Mundarro-Mondra
Idiazabal-Aloña Mendi
Aretxabaleta-Berio
Euskalduna-Pasajes
Trintxerpe.EHU Vasconia
Hernani-Real Union
Zumaiako-Hondarribia

**IDIAZANAL-MONDRA**

## Gol aukerak egin arren, esku hutsik

**M.B.** > BERGARA

Mondra esku hutsik itzuli zen Idiazabalen aurkako partidutik (2-0). Andoni Azkargortaren taldeak partidua menderatu zuen hasieratik bukaerara, eta zortzi bat aukera oso garbi egin zituen. Baina, ez zuten golik egin eta puntu barik geratu ziren.

Idiazabal taldeko atezainaren aurrean ez zuten asmatu arrasatearrek. Ostera, Idiazabalgo taldeak lehen aukera aprobetxatuz gola egin zuen 65. minutuan. Bigarrena luzapenean egin zuten penalti jaurtiketa baten.

ZIKLO KROSA > OSINTXUKO PROBA

# Egoitz Murgoitio eta Rocio Gamonal nagusi Osintxun

Jone Muxika bigarren sailkatu zen eta Mikel Aristi bergararrak kadete mailako proba irabazi zuen

MIREIA BIKUÑA > OSINTXU

Cafes Baque taldeko Egoitz Murgoitio, Spol Caixanovako Rocio Gamonal eta lokatza izan ziren zapatuan Osintxun jokatutako ziklo-kroseko protagonista nagusienak. Biek ala biek, elite mailako lasterketak irabazi zituzten proba ikustera hurbildutako zaleen txalo artean.

**MURGOITIOREN NAGUSITASUNA**

Elite mailako txirrindulariak irten orduko, zirkuitoa erabat lokaztuta zegoen; baina, egoerari aurre eginez Egoitz Murgoitiok menderatu zuen lasterketa hasieratik bukaerara. Lehen itzulian Tino Zaballak eta Atenaseko Olinpiar Jokoetan zilarrezko domina lortu zuen Jose Antonio Hermidak gertutik jarraitu zuten Murgoitio. Baina, hirugarren itzulian aurrera egin zuen Cafes Baqueko ziklistak, eta helmugara 41 segundoko abantailarekin heldu zen. "Proba oso gogorra izan da, lokatz asko zegoen-eta. Dena den, gustura nago egindako lanarekin. Tino Zaballak huts zein tokitan egiten zuen ikusi dudanean, aurrera egitea erabaki dut. Zirkuitoa zegoen moduan egonda, abantaila hartzen zuenak lasterketa irabaziko zuela uste nuen, eta hala izan da", esan zigun amaieran Egoitz Murgotiok.

Zaleek Espainiako Kopa irabazteko lehian zeuden Zaballaren eta Ruiz de Larrinagaren arteko lehia espero zuten, baina Larrinaga hasieratik geratu zen Zaballaren eta Murgoitioren atzean. Spiuk Urteaga taldeko txirrindularia laugarren heldu zen helmugara.

Bestalde, CDR taldeko Iñigo Roldan aretxabaletarra 17. tokian sailkatu zen eta Zigor Urain arrasatearra 26. tokian, itzuli batera.

**ELGETARRA, MAILA ONEAN**

Elite mailako emakumeen lasterketan Rocio Gamonalek, Jone Muxikaren eta Rosa Maria Bravoren arteko lehia estua ikusi genuen. Gamonalek markatu zuen erritmoa. Hirugarren itzulian aurrera egin zuen Bravok, eta Muxika elgetarra atzean geratu zen. Baina, azken itzulian Rosa Maria Bravo erori egin zen eta Gamonal eta Muxika sartu ziren, hurrenez hurren, lehen eta bigarren tokietan.

**MIKEL ARISTI KADETEETAN**

Txalo artean ospatu zuten zaleek Mikel Aristi bergararrak kadete mailan lortutako garaipena. Euskadi taldeko ziklistak hasieratik bukaeraraino menderatu zuen lasterketa.



Egoitz Murgoitio zirkuituko aldapetako bat igotzen. JOSETXO ARANTZABAL






Xabier Arantzeta ibildeko bihurgune batean. JOSETXO ARANTZABAL



Jose Antonio Hermida eta Tino Zaballa, helmugan JOSETXO ARANTZABAL



Lasterketa hasi aurretik beroketa ariketak egiten. JOSETXO ARANTZABAL



Unai Yus errekan garbitzen. J.A.



Gamonal eta Muxika. J.ARANTZABAL



Zirkuituan lokatza eta elurra tartekatu ziren. Ikusleak ibilbideko toki guztietan egon ziren. JOSETXO ARANTZABAL



Elite mailako lasterketaren irteera. XABIER URTZELAI

## sailkapena

**MAILAZ MAILA**

| ELITE MAILA | |
|---|---|
| 1. Egoitz Murgoitio | 01:02:11 |
| 2.Isaac Suarez | 01:02:52 |
| 3.Jose Antonio Hermida | 01:03:53 |
| 4. Tino Zaballa | 01:03:38 |
| 5. Javier Ruiz De Larrinaga | 01:05:31 |
| 17. Iñigo Roldan | 01:10:06 |
| 26. Zigor Urain | Itzuli batera |

| MASTER MAILA | |
|---|---|
| 1. Samuel Jimenez | 00:43:17 |
| 2. Marco Antonio Prieto | 00:43:53 |
| 3. Ruben Rodriguez | 00:42:02 |
| 4. Rafael Ruiz de Arkaute | 00:45:15 |
| 5. Guillermo de Portugal | 00:46:00 |

| NESKAK ELITE | |
|---|---|
| 1. Rocio Gamonal | 00:48:30 |
| 2. Jone Muxika | 00:48:59 |
| 3. Rosa Maria Bravo | 00:50:10 |

| GAZTE MUTILAK | |
|---|---|
| 1. Josep Nadal | 00:44:43 |
| 2. Michel Vuelta | 00:46:20 |
| 3. Ismael Barba | 00:46:36 |
| 27. Jon Rivero | 00:53:51 |
| 18. Xabier Arantzeta | 00:55:28 |

| GAZTE NESKAK | |
|---|---|
| 1. Tania Calvo | 00:49:20 |
| 2. Maite Murgia | 00:51:08 |
| 3. Zaloa Trevilla | 00:54:35 |

| KADETE MUTILAK | |
|---|---|
| 1. Mikel Aristi | 00:35:34 |
| 2. Pablo Rodriguez | 00:36:05 |
| 3. Jonathan Lastra | 00:36:24 |
| 22. Hodei Orobengoa | 00:42:26 |

## PARTE-HARTZAILEAK



**Mikel Aristi**
Kadetetan, lehena

Lasterketa atzetik aurrera egin dut. Irteeran nahiko atzean geratu naiz, baina indartsu ikusi dute nire burua, eta poliki-poliki aurrera egin dut. Abantaila lortu ondoren, errazago izan da lasterketa menderatzea. Ibilbideko zati handiena korrika egin dugu, oso lokaztua zegoen-eta.



**Jone Muxika**
Nesketan, bigarrena

Lokatza sendo zegoen, eta bizikletatik ez erortzen ahalegindu naiz. Rosa Maria Bravo erori egin da eta horrek aukera eman dit bigarren postua eskuratzeko. Egia esan oso gustura nago egindako lanarekin. Aurretik, betiko moduan, Gamonal oso indartsu ibili da.



**Egoitz Murgoitio**
Elite mailan, lehena

Ibilbidea oso lokaztua zegoen, eta oso gogorra egin zait. Era berean, oso gaitza zen bizikleta gainean mantentzea. Indartsu irten naiz eta abantaila lortu dudanean, garaipena gertuago ikusi dut. Egia esan, oso gustura nago egindako lanarekin, eta noski, baita garaipenarekin ere.



**Rocio Gamonal**
Nesketan, lehena

Ibilbiderik gehiena korrika edo oinez egin ditut, eta abantaila hartzea kosta egin zait. Gainera, Muxikak eta Bravok lan ona egin dute. Orain arteko lau probak irabazi ditut eta oso pozik nago. Hurrengo helburua Valladoliden jokatuko den Espainiako txapelketa irabaztea da.



**Iñigo Roldan**
CDR taldeko ziklista

Ohituta geunden lokatz bariko zirkuituetan ibiltzen; aspaldian ez genuen halako zirkuito lokaztu batean korritzen. Egindako lanarekin gustura nago, are gehiago parte hartu dutenen maila ikusita; dena den, oso gogorra egin zait. Zelaietako zatietan lokatz asko zegoen.

**LEHEN ERREGIONALA** > BERGARA-ANTZUOLA

# Antzuola Bergararen 'gafea' bilakatu da honez gero

## Lehen itzulerako azken partiduan galdu zuen Bergarak lehen partidua; Iturbe atezain antzuolarra, onena

BERGARA

**1-2**

ANTZUOLA

**Bergara** > Soto, Nafarrete, Garitano (Agirrezabal, 67. min), Oregi (Mujika, 73), Urteaga, Agirre, Loiola, Balzategi (Ibañez, 53), Otero (Alzola, 53), Crespo (Martinez, 53) eta Cabanillas.

**Antzuola** > Iturbe, Asensio (Iparragirre, 46), Mendizabal, Franco, Iturbe (Idiakez, 81), Azkarate, Guridi (Jimenez, 87), Agirre, Zubikarai (Arbulu, 86), Carlos Ortiz (Idiakez, 52) eta Godoy.

**Bestelakoak** > 350 ikusle inguru Agorrosinen. Hotza. Antzuolatik jende dezente etorri zen derbira. Ocampos epaileak sei txartel hori atera zizkien etxekoei: Nafarreteri, Agirreri, Balzategiri, Oterori, Crespori eta Agirrezabali. Bisitarien partetik Asensiok, Guridik, Zubikaraik eta Godoyk ikusi zuten txartela. Godoyri bigarrena eta gorria atera zion luzapenean. Antzuolarrek ondo ospatu zuten garaipena amaieran.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Hamasei urte besterik ez dituen Jon Iturbe atezain antzuolarra izan zen zapatuko derbiko protagonistetako bat. Gazte mailako lehen urtea du Iturbek, baina beterano baten maila eta patxada erakutsi zituen zapatuan. Penalti bat gelditu zuen 1-2koarekin eta neurri handi batean berari esker eraman zituen Antzuolak hiru puntuak. Partidua txarra izan zen eta bisitariak hobeto moldatu ziren lokaztutako berdegunean. Presaka, antolaketa barik jardun zuten mahoneroek. Manu Diaz etxekoen entrenatzaileak lehen itzuleraren amaieran taldearen benetako aukerak ikusiko zirela esan zuen aspaldi; denboraldiko lehen partidua galdu zuten zapatuan baina lidergoari eusten diote. Hala ere, zapatuan baino hobeto jokatu beharko dute bigarren itzuleran igoera eskuratu ahal izateko.

**O-1 ATSEDENALDIAN**

Zapatuan bezain serio eta kementsu jokatuko balu beti, Antzuola gorago legoke sailkapenean. 30. minutuan aurreratu ziren markagailuan Auritzek egindako golari esker. Zubikaraik erdiratu, Godoyren errematea eta Sotoren geldiketa bikaina. Hantxe zegoen Auritz Guridi urrunketa jaso eta baloia sareetara bidaltzeko.

**GURIDIREN BIGARRENA**

Hortik aurrera antzuolarrek eroso jokatu zuten, sendo atzean eta noizean behin, kontraerasoan, arriskua sortuz. Guridik eta Zubikaraik partidu ona egin zuten zelai erdian. Mahoneroek, epailearen erabakiei gehiegizko arreta eskaini zioten, baloia askotan bidean ahaztuz. Nafarreteren burukada bat gutxigatik gora joan zen 72. minutuan eta handik bi minutura Martin Zaitegik banakoa egin zuen. Agirreren jaurtiketa bikain urrundu zuen Iturbek eta marra ondoan zegoela gola egin zuen Ibañezek.

Hala ere, etxekoen pozak ez zuen asko iraun. Defentsaren despiste bat aprobetxatuta, Guridik, bakar-bakarrik 1-2koa egin zuen area txikitik. Gazte bat lagunekin ziharduen mugikor bidez harmailetan: *"Bigarrena ointxe... Irabazten... Kontaukostau gero..."*. Bergarak penalti eztabaidagarri bat izan zuen alde baina Martinezen jaurtiketa hankekin urrundu zuen Iturbek.

Presaka eta ordenarik gabe berdinketaren bila jo zuten etxekoek, baina emaitzarik gabe. Hiru puntuak, aurten ere Antzuolara.



Antzuolarrak Guridiren lehen gola ospatzen. JOSETXO ARANTZABAL

**emaitzak eta sailkapenak**

**PREFERENTE MAILA**

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Bergara** | **36** | 15 |
| 2. **Mutriku** | **29** | 14 |
| 3. **Lagun Onak** | **27** | 14 |
| 4. **Zestoa** | **27** | 15 |
| 5. **Urola** | **25** | 15 |
| 6. **Eibartarrak** | **23** | 15 |
| 7. **Aretxabaleta B** | **21** | 15 |
| 8. **BTLS** | **19** | 15 |
| 9. **Lazkao** | **19** | 15 |
| 10. **Elgoibar B** | **17** | 15 |
| 11. **Anaitasuna** | **17** | 15 |
| 12. **Orioko** | **17** | 15 |
| 13. **Antzuola** | **16** | 15 |
| 14. **Mondragon B** | **15** | 15 |
| 15. **Ilintxa** | **13** | 15 |
| 16. **Tolosa B** | **8** | 15 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Mondragon-Aretxabaleta | 1-1 |
| Mutriku-BTLS | 2-1 |
| Ilintxa-Orioko | 1-0 |
| Lazkao-Eibartarrak | 2-2 |
| Bergara-Antzuola | 1-2 |
| Zestoa-Lagun Onak | Bertan behera |
| Anaitasuna-Urola | 0-2 |
| Tollosa-Elgoibar | 0-1 |

### Antzuolara ligako azken partiduan

Aurreko denboraldian jokatutako bi partiduetan Antzuola nagusitu zitzaion Bergarari: 3-2 Antzuolan eta 0-1 Agorrosinen. Bergaran galdutako partidu hura erabakigarria gertatu zen Bergarak igoera promozioa ez jokatzeko.

Aurten hobeto dabil Bergara, baina Antzuola etorri behar izan da lehen partidua galtzeko. Hala ere, Manu Diazen taldeak sendo jarraitzen du lider postuan. Espero dezagun abantaila nahikoarekin heltzea ligako azken partidura. Hobe Antzuolara igoera fasea ziurtatuta heltzea, badaezpada.



JOSETXO ARANTZABAL

### Mondrako neskek, husna berdindu etxean

Mondragonek eta Intxaurdik husna berdindu zuten zapatuan Mojategin, emakumezkoen igoera faseko lehenbiziko jardunaldian. Ez zen partidu ona izan eta batzuek zein besteek ez zuten asmatu ate aurrean. Zortzi talde dira lehian igoera fasean. Hurrengo jardunaldian Añorgari bisita egingo diote arrasatearrek.

**LEHEN ERREGIONALA** > MONDRAGON-ARETXABALETA

# Mondrak eta Aretxabaletak bana berdindu zuten Mojategin, bailarako beste derbian

## Gorka Juradok egin zuen etxekoan gola eta Enrique Tenak berdindu zuen, bigarren zatian

**E.M.** > BERGARA

Mondragonek zuen puntu behar handiagoa derbian, baina Sergio Olivenza eta Jose Tenaren taldea berdinketarekin konformatu behar izan zen Mojategin, zapatuan.



Jurado golegilea jokalari aretxabaletarrez inguratuta. JOSETXO ARANTZABAL

Lehen zatian etxekoek izan zuten baloiaren kontrola eta gol aukera bat edo beste sortu zuten. Jokaldi eder baten ondorioz iritsi zen aurreneko gola, 30. minutuan: Gorka Juradok area txikian errematatu zuen eskuinaldetik hasitako jokaldia. Atsedenaldira gol bateko abantailarekin iritsi ziren etxekoak.

**INTENTSITATEA DERBIAN**

Hala ere, aretxabaletarrak ez zeuden amore emateko gertu. Lerroak aurreratu zituzten berdinketaren bila eta korner jaurtiketa batetik etorri zen banakoa. Zelairatu berria zen Enrique Tenak lehen postean errematatu zuen (min. 66), defentsa arrasatearra ustekabean harrapatuz. Hortik aurrera, intentsitatea bai, baina joko gutxi. Berdinketa ontzat eman zuten talde biek.

**ESKUBALOIA** > BIGARREN NAZIONALA

# Ford Mugarrik merezitako porrota jaso zuen etxean, Portugaleteren aurka

Portugaleteren defentsa sendoak eta arrasatearren kanpoko jaurtiketa eskasek erabaki zuten partidua

Azken txanpan berdinketatik oso gertu izan zen etxeko taldea




Portugaleteren defentsa sendoa gainditzeko arazo handiak izan zituen Ford Mugarrik. JOSETXO ARANTZABAL

**FORD MUGARRI ARRASATE**

**26-28**

**PORTUGALETE**

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Merezitakoa, baina mina egiten duen horietakoa izan zen Ford Mugarriren porrota. Merezitakoa, Portugalete Ford Mugarri baino gehiago izan zelako. Eta mingarria, sailkapenean gertutik jarraitzen zuen taldeak gainditu egin duelako. Finean, zapatuan eta etxean, partidu garrantzitsua galdu zuten Edu Orgazen mutilek.

**KANPOKOAK SENDO DEFENTSAN**

Orgazek adierazi zuenez, "Portugaleteren seiko defentsak harritu egin gaitu, oso lan txukuna egin dute euren atea defendatzen". Defentsa itxiarekin irten ziren bizkaitarrak eta arrasatearrek ez zuten behar bezala jakin defentsa gainditzen. Bestalde, honakoa gaineratu zuen arrasatearren entrenatzaileak: "Oso gaizki ibili gara kanpoko jaurtiketetan".

Beraz, bizkaitarren defentsa sendoa eta arrasatearrek kanpoko jaurtiketetan erakutsitako maila eskasa izan ziren partiduaren gakoak: "Ezinezkoa da horrelako defentsa baten aurrean, eta kanpoko jaurtiketekin hain gaizki ibilita, partidu bat irabaztea" adierazi zuen Orgazek. Gainera, aurkarien defentsa gainditzeko joko azkarra egiten saiatu zen Ford Mugarri, baina lan horretan ere ez zuten asmatu. Argi utzi zuen entrenatzaileak: "gaurkoa ez da gure eguna izan".

**HASIERATIK PORTUGALETE NAGUSI**

Hasi eta berehala, 3 edo 4 goleko errenta hartu zuen Portugaletek, eta oso ondo jakin zuen errenta mantentzen. Ford Mugarriri asko kostatu zitzaion norgehiagokan sartzea; Orgazek azaldu zuenez, apur bat lokartuta irten ziren kantxara. Hala ere, lehen zatia kanpokoen aldeko gol biko errentaz soilik amaitu zen (14-16).

**EMOZIOA ETA TENTSIOA AMAIERAN**

Eskubaloiak buelta asmo ematen ditu, eta amaieran gol bakarrera hurbildu ziren Orgazen mutilak (26-27). Azken jokaldian epaileak ez zuen etxekoen aldeko falta ikusi, eta bizkaitarrek lehia erabakitzeko aprobetxatu zuten, azken gola sartuz (26-28).

**ESKUBALOIA**

## Partidu erraza izan zuen Verkol Aloñak

38-19 nagusitu ziren Elorrioren kontra, partidu osoa kontrolatu ostean

**J.B.** > OÑATI

Verkol Aloña eskubaloi taldeak garaipen erraza erdietsi zuen joan den zapatuan. Emaitza ikusi besterik ez dago: Ainhoa Unamunoren neskek Elorrioko taldea bikoiztu egin zuten markagailuan (38–19).

Oñatiarrek hasieratik erakutsi zuten euren nagusitasuna. Hala ere, Elorriok susperraldia izan zuen bigarren zatiaren hasieran, eta sei puntura gerturatu ziren (17-11).

Unamunok zera esan zigun: "Taldea ondo ibili da, bai defentsan zein erasoan. Partidua kontrolpean izan dugu momentu guztietan".

**BERA-BERA ETA ZARAUTZ**

Datorren astean Verkol Aloñak Berara egingo du bisita, baina Unamunok azaldu zuenez, Zarautzen aurkako partidua izango da garrantzitsuena. Liderra da Zarautz, oñatiarren aurretik. Aste bi barru lehiatuko dira, eta bai Zarautzek zein Verkol Aloñak igoera fasea jokatzea ziurtatu dute ia. Hala ere, indartsuen zein dabilen ikusi ahalko da.



JOXEAN IÑARRA

## Bergarar bi Espainiako karate txapelketan

Ioane Amasoarrain eta Ione Agirrezabalek – lehen ilaran, erdian eta eskuinaldean– Espainiako kadete, junior eta 21 urtera arteko karate txapelketan hartu zuten parte, Euskadiko selekzioarekin. Euskadiko selekzioan sartzeko gogotik egin behar izan dute lan. Agirrezabal zazpigarren geratu zen, 59 kilotik beherako junior mailan. Eta Amasorrain, bestetik, bosgarren 50 kilotik beherako kadete mailan. Guztira Estatuko 900 karateka baino gehiago izan ziren aste bukaeran Mendizorrotzako kiroldegian.

**PILOTA** > 'BERRIA' PILOTA TXAPELKETA

# Arrasate izan zen onena Elizondoko Txaruta taldearen aurkako kanporaketan

Oso maila ona erakutsi zuten arrasatearrek eta hiru partiduak irabaziz kanporatu zituzten nafarrak: 22-21, 22-11 eta 22-15



Ibai Bolinagak erakustaldia eman zuen beste behin. JOSETXO ARANTZABAL

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arrasateko pilota taldeak aurrera egin du *Berria* egunkariak antolatzen duen pilota txapelketako lehen kanporaketan. Aurten lehenengo aldiz jaso dute txapelketan parte hartzeko gonbita, eta pilotari arrasatearrek ez zuten hutsik egin.

Kadete, jubenil eta senior mailetan lehiatu ziren Elizondoko Txaruta pilota taldearen aurka; hiru partiduak irabazi zituzten: kadetetan 22-21, jubeniletan 22-11 eta seniorretan 22-15.

**ARRASATEKO BIKOTEAK, HOBETO**

Lehen norgehiagokan Beñat Arabaolaza aurrelaria nabarmendu zen eta emozioa izan zen nagusi azken unera arte. Jubenil mailan, Ibai Bolinagak erakustaldia eman zuen beste behin, eta bere mailan Euskal Herriko atzelari onenetarikoa dela berretsi zuen. Azkenik, seniorretan Egoitz Uribarren atzelariaren lan txukunak ahalbidetu zuen Arrasateko bikotearen garaipena.

**KIROLA** > GABONEI ERREPASOA

# Gabonetako gehiegikeriei antidoto onena kirola egitea dela erakutsiz



OINTXE

## PXG Regeneracom nagusi 'Arrasate Hiria' Gabonetako txapelketan

Talde galiziarra izan zen garaile Ointxe Arrasateko saskibaloi kirol elkarteak antolatu zuen txapelketan. Abenduaren 28ko final handian Euskadiko selekzioaren kontra 69-76 gailendu ziren.

GABONETAKO BESTE KIROL EKINTZA BATZUK

## Kirol ekintzek ez dute etenik izan gabonetan

Kirolak protagonismo berezia izaten du Gabonetan. Hona Debagoienean izan diren beste kirol ekitaldien errepaso txiki bat:

**MUXIKA GARAILE AIZARNAZABALEN**
Jone Muxika elgetarrak Gipuzkoako ziklo kros txapeldun izatea lortu zuen, abenduaren 28ko Aizarnazabaleko proba irabazi ostean.

**MONDRA ONENA BERGARAN**
Urtarrilaren 3an ospatu zen BTLS futbol taldeak antolatutako futbol txapelketa Arrasatera joan zen.

**XABIER BARKERO MEMORIALA**
Bergarako futbol beteranoek irabazi zuten Xabier Barkeroren memoriala, antzuolarrak 2 eta 0 garaituz.

**ALBERTO NARRO ESPAINIAKO ONENA KENPO TXAPELKETAN**
Alberto Narro gazte arrasatearrak irabazi zuen Espainiako Kenpo txapelketa. Finalean aurkaria lesionatu ostean irabazi zuen.

**VARELA ETA RAMOS IRABAZLE SAN SILBESTRE ARRAKASTATSUENEAN**
Aurten inoiz baino korrikalari gehiago izan ditu Oñatiko San Silbestre lasterketak, guztira 244. Gizonezkoetan Yerai Varela oñatiarrak etxean irabazi zuen eta emakumezkoetan Marisol Ramos izan zen azkarrena.



IÑIGO ZAITEGI

## Athletic irabazle gazte mailako txapelketan

Athleticek irabazi zuen Bergarako gazte mailako XIX. txapelketa; finalean zurigorriek Eibar hartu zuten mendean. Athleticek Euskal Ligan diharduen Bergarako taldea utzi zuen atzean, penaltietan erabaki zen partiduan. Mahoneroek, beraz, oso lan txukuna egin zuten. Eibar, bestalde, erraz heldu zen finalera, Reala 4 eta 1 menderatu zuen-eta. Txapelketak Luis Herzog 'Lutxi' zena omendu zuen.



ATLON

## Reala garaile izan zen nesken torneoan

Arizmendi ikastolak antolatuta, abenduaren 27an nesken futbol partiduak izan ziren Aretxabaletako Ibarra zelaian. Realak –irabazlea–, Athleticek, Eibarrek eta Debagoieneko selekzioak hartu zuten parte. Jende dezente gerturatu zen Ibarrara.

## Etxeko pilotariak etxean protagonista

Abenduaren 27an jokatu ziren Bergarako pilota txapelketako finalak. Maila ezberdinetako finalistez gain, herriko pilotariak guztiak izan ziren protagonista. 16:00etan hasi eta 21:00ak arte, 90 bat haur eta 30 federatu jo eta ke ibili ziren pilota astintzen. Denon parte hartzea izan zen abiapuntua.



IÑIGO ZAITEGI




GOIENKARIA

## Ainhoa Lazkanori omenaldi hunkigarria

Aloña Mendi saskibaloi taldeak X. omenaldi berezia eta polita egin zion Ainhoa Lazkano jokalari ohiari, urtarrilaren 5ean. Beteranoak eta egungo jokalariak elkar neurtu ziren Zubikoa kiroldegian. Bi partidutan, egungo senior taldeak nagusitu ziren. Orain dela hamar urteko jokalariek gaur egungo jokalariekin neurtu zituzten indarrak, eta noski, gaur egun jokatzen dutenek irabazi zuten (71-54). Saskibaloi festa ederra izan zen Zubikoan.



ASIER OSINAGA

## Etxeko txikienak ere San Silbestrean

Oñatiko San Silbestre lasterketa inoiz baino arrakastatsuagoa izan da aurten; helduen artean 244 korrikalari izan ziren guztira. Hala ere, euren aurretik etorkizunean lekukoa hartuko dutenek egin zuten korrika, eta ikusi zenez, gogotsu datoz gaztetxoak.

Jose Antonio Hermida > Mendiko bizikletako ziklista

# "Atenasko domina baino, munduko txapelketako garaipenak nahiago ditut"

MIREIA BIKUÑA > OSINTXU

**Jose Antonio Hermida (Puigcerda, 1978) hirugarren tokian sailkatu zen Osintxuko proban, eta atzo Itsasondon korritu zuen. Sari banaketa ekitaldiaren ondoren, harekin egin genuen berba; besteak beste, Osintxuko probaz, denboraldiko asmoez eta Atenasko Joko Olinpikoetan lortutako zilarrezko dominaz.**



Jose Antonio Hermida Osintxuko plazan saria jaso ondoren.

JOSETXO ARANTZABAL

**Nola laburtuko zenuke Osintxuko lasterketa?**

Espainiako Kopan puntu gutxi nituenez, atzeko lerroetatik irten naiz; baina, poliki-poliki aurrera egin dut. Lehen itzulia bukatu orduko aurreko postuetan sartu naiz, eta hirugarren tokian heldu naiz helmugara. Lokatzetan egin dugun lehen lasterketa da, eta emaitza oso ona da niretako.

**Korrikalari gehienek esan dute ibilbideko zatirik handiena korrika edo oinez egin behar izan dutela.**

Egia da. Baina, egia da baita ere, azken urteotan egin dugun ziklo-krosa beste era batekoa izan dela; alegia, lokatz bariko zirkuituetan egin dugu. Gaurko ibilbide lokaztuak lehenagoko ziklokrosera eroan gaitu. Ibilbidea oso lokaztua dagoenean, metro gehiago egin behar ditugu korrika edo oinez; baina, zailtasuna guztiondako berbera izan da.

**Lokatzaren erruz ibilbidea oso gogorra izan da. Gustatu zaizu zirkuitua?**

Bai. Gaurkoan oso gogorra egin zaigu lokatzarengatik. Asfalto gaineko kilometro eta erdian ondo ibili naiz bizikleta gainean; baina, zelaian gaitza izan da, zulo asko zeuden-eta.

**Sailkapenak erakusten duen moduan, Murgoitio izan da indartsuena?**

Niretako Egoitz Murgoitio da denboraldiko ezustekoa. Ispasterreko proba bigarren tokian bukatu zuen, eta gaur bera izan da indartsuena. Nagusitasuna erakutsi duen arren, atzeko ziklisten artean lehia gogorra izan dugu. Zaballa, Suarez, Ruiz de Larrinaga eta ni neu borrokan ibili gara podiumera igotzeko.

> "Ibilbidea lokaztuta dagoenean, metro gehiago egiten ditugu korriak edo oinez"

> "Osintxuko ibilbide lokaztuak lehenagoko ziklo-krosa ekarri dit gogora"

**Aste bukaerako probak bukatuta, ze asmo duzu Valladoliden jokatuko den Espainiako txapelketarako?**

Lasterketa ona egin eta ahalik eta puntu gehien lortu gura ditut, urtarrilaren 31an eta otsailaren 1ean Holandan jokatuko den munduko txapelketan parte hartu ahal izateko. Espainiako hautatzaileak aukeraketa egin beharko du txapelketa bukatu ostean.

**Ziklo-kros probekin bukatu ondoren, ze helburu dituzu mendi bizikletako denboraldirako?**

Munduko ziklo-kros txapelketan parte hartzeko aukerarik ez badut, entrenatzen jarraituko dut mendi bizikletako denboraldia hasi arte. Otsail bukaeran hasiko dugu urtea Mallorkan, eta martxo aldera Hegoafrikara joango naiz.

**Mendi bizikleta munduan urte asko daramatzazu, baina askok, Atenasko Joko Olinpikoetan lortutako zilarrezko dominarengatik gogoratzen zaituzte.**

Sidneyko, Atenaseko eta Pekineko Joko Olinpikoetan egon naiz, eta esperientzia izugarria da. Sidneyn hasiberri modura joan nintzen eta laugarren tokian sailkatu nintzen. Atenasen faboritoen artean nengoen, eta zilarrezko domina eskuratu nuen. Iaz, Pekinen faboritoen artean nengoen, baina emaitza ez zen oso ona izan.

**Zilarrezko domina izan da lortu duzun emaitzarik onena?**

Esango nuke aurretik egindako bidearen helmuga izan dela. Mendi bizikletako beheko-mailetan munduko txapeldun izan nintzen 18 eta 23 urterekin. Gainera, Europako txapelketa irabazi nituen 2002an eta 2004an, eta urte hartan irabazi nuen domina.

Egia da, hedabideek garrantzia gehiago ematen diotela Joko Olinpikoetan lortutako dominei. Baina, niretako kuttunenak munduko txapelketetan lortutako garaipenak dira.

> "Mendiko bizikletako denboraldia Hegoafrikan hasiko dut martxo aldera"

> "12 urterekin aldaketa bitxia egin nuen: skate taula utzi eta bizikleta hartu nuen"

**Atenasko helmugan egindako ospakizuna hedabide guztietan ikusi genuen. Oso bitxia izan zen.**

Egia esan, zaleek gogoan dute oraindik ospakizuna. Noizean behin ospakizuna bereziak egiten ditut. Baina Atenaskoa apustu baten ondorio izan zen.

Entrenamenduko kide Juan Antonio Flecharekin apustu egin nuen, dominarik irabaztekotan ospakizun berezia egingo genuela. Flechak arkulariarena egin behar zuen eta nik pistoladunarena; eta hala egin nuen.

**Mendiko bizikletan ze ziklista miresten duzu?**

Thomas Frisney. Haren antza dudala uste dut. 15 urtetan txapelketa bakarra irabazi zuen, baina askotan sailkatu zen bigarren eta hirugarren tokietan. Bestalde, Julian Absalon gustatzen zait. Askotan irabazten didan arren, lehia berezia dut harekin.

**Skate taula utzi zenuen bizikleta gainean hasteko. Aldaketa bitxia, ezta?**

Bai, txikitan asko erabiltzen nuen skate taula. Nire herria 1.200 metrora dago, eta egun askotan izaten dugu elurra. Baina 12 urterekin mendiko bizikleta ezagutu, eta aldatzea erabaki nuen. Engantxatu egin ninduen, edozein tokitara joateko askatasuna ematen zidan-eta. 14 urterekin korritu nuen lehen lasterketa.

**Aisialdian ze egitea gustatzen zaizu?**

Urteko 200 egunetan egoten naiz etxetik kanpo; hortaz, emaztearekin eta bi urteko semearekin egoteko aprobetxatzen dut aisialdia. Baina, profesional mailan denboraldia bukatu arren, entrenatzen jarraitu behar dugu. Besteak beste, iraupen-eskia, mendiko eskia eta kartinga egiten ditut.

ARRASATE

# Zapatu goizero, kirol bakoitzak eskaintzen duenaz gozatzen

**'MINI ESKUBALOIA'** Adina dela-eta (7-9 urte), Iturripeko kantxaren zabalera hartuz jokatu zituzten partiduak

**FUTBOLA MUSAKOLAN** Musakolan areto futbolean eta 8ko futbolean jokatu zuten neska-mutikoek

**GOGO BIZIZ** Iturripen eskubaloian jokatu zuten gaztetxoek gogo biziz jardun zuten

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Zapatu goizean txikitxoenen eskubaloia izan zen protagonista Iturripen. Eskubaloia ez da agian euren kirol gustukoena izango –gehientsuenak, mutilen artean bereziki, futbola aukeratzen dute–, baina gogo biziz aritu ziren. 3. eta 4. mailako ikasleak ibili ziren lehian, eta adin baxua dela-eta kantxaren zabalera hartu zuten partiduetarako. Hala, aldi berean bi partidu jokatzeko aukera izan zuten.

Partiduak 10:00etan hasi ziren eta 13:00ak arte ez ziren amaitu. Guztira zortzi partidu jokatu ziren eta emaitzak, denetarikoak: 0–12, 0–1, 8–14, 10–13...

Ikuslegorik ez zen falta izan –gaztetxoen gurasoak gehienak– eta gol bakoitzak txalo zaparrada jaso zuen. Eskubaloia ezagutzen hasiak direla jakinda, orokorrean oso lan txukuna egin zuten gaztetxoek. Bakoitzaren abileziak alde batera utzita, oso kontzentratuta eta euren onena emateko asmo guztiekin irten ziren kantxara neska-mutikoak.

**MUSAKOLAN FUTBOLA**

Eskubaloia, baina, ez zen izan Arrasateko eskola kirol bakarra. Musakolako kiroldegian futbola izan zen nagusi; alebin mailako neskek areto futbolean jokatu zuten eta mutilek, bestalde, zortziko futbolaz gozatzeko aukera izan zuten Mojategiko futbol zelaian.

Eskola kirolak ez du atsedenik, eta datorren astean benjaminek eskubaloian jokatuko dute eta alebinek, berriz, futbolean.




J.B.

**Santa Teresa.** Goian: Iker Salas, Unai Delgado, Unai Sierra eta Julen Santa Cristina. Behean: Iñaki Azkarragaurizar, Imanol Iria eta Gorka Presa.




J.B.

**Almen 3A.** Goian,: Unai Azkarate, Jon Zabaleta, Jon Aizpurua, Iker Ibabe eta Ekaitz Oñate. Behean: Mikel Egia, Hur Sarasua, Joanes Sarasua, Jorge Markos eta Jokin Isasmendi.




J.B.

**Otxandio.** Irati Camara, Lore Ajuria, Maria Oleagordia, Leire Uribe, Ane Unzalu, Amaia Lasa, Neike Barga eta Paula Unzaluk osatzen dute Otxandioko taldea.




J.B.

**Kurtzebarri.** Aitor Ruiz de Austria, Aritz Fernandez, Markel Irasuegi, Iago Zuazua, Julen Ibabe eta Ibai Alberdi dira Kurtzebarriko taldeko kideak.

## ESKUBALOIAN, ZEIN POSTUTAN JOKATZEA DUZUE GUSTUKO?




**Jon, Joanes eta Hur**
Almen 3A

Ikuspuntu ezberdinak dituzte eskubaloitik gehien gustatzen zaiena zer den esateko: Joni "golak sartzea" gustatzen zaio, Hur-i “golak defendatzea” eta Joanesek “elkarren artean paseak egitea” du gustuko.



**Maria eta Paula**
Otxandio

Eskubaloia ez da Maria eta Paularen kirol gustukoena. Gauza bat argi dute: atezain moduan ez dute jokatu nahi. Bestalde, nahiago dute kirola taldean egin. Mariak kirola taldean egiteak “hobeto pasatzeko” aukera ematen diola dio.



**Julen eta Iago**
Kurtzebarri

Izerdi patsetan amaitu dute partidua Julen eta Iagok. Lehenak honakoa adierazi du: “aurrelari moduan jokatzea gustatzen zait, golak sartzeko”. Iagok honakoa dio: “nik erdian jokatzen dut, paseak egitea gustatzen zait”.




**Unai, Unai eta Gorka**
Santa Teresa

Atezain moduan jokatzea gustatzen zaio Unai Delgadori, “besteen jaurtiketak gelditzeko”. Unai Sierra, bestalde, atezain ez den edozein tokitan gustura ibiltzen da. Azkenik, Gorkaren aurrean sentitzen da gusturen, “golak sartzen”.



**Ekaitz eta Mikel**
Almen 3A

Ekaitzek eta Mikelek ez dute zalantzarik: eskubaloiak duen onena golak sartzea da. Biei aurrelari moduan jokatzea gustatzen zaie, golak sartzeko. Ekaitzi “golak falta bidez sartzea” gustatzen zaio bereziki.



**> DANBAKA**
Lehiaketako III. edizioko 24 taldeen gaineko iritzia, epaimahaiaren eskutik **> 30**



**> ABESLARIAK**
Amaia Txintxurreta oñatiarra Cuatro telebistako 'La Batalla de los coros' saioan **> 31**



**> ANTZERKIA**
Agerre antzerki talde beteranoaren sortzaile Maite Agirreri elkarrizketa egin diogu **> 40**



**EKON TALDEAREN ITZULERA** Maiatzaren 14an hasiko dute *Zirikatzen Jarraituz Tour* izeneko bira Bilboko Kafe Antzokian. GORKA LASA

**Juan Sangre** > Ekon taldeko abeslaria

# "Ekonen historia laburbilduko dugu eta ikuskizuna,noski, ziurtatuta egongo da"

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

**Ekon talde arrasatearra berriro ere itzuliko da eszenatokira. *Zirikatzen Jarraituz Tour* izena eman diote itzulerako bira honi.**

**Zer dela-eta hartu duzue taula gainera itzultzeko erabakia?**

Taldea utzi genuenetik, sei urte hauetan, jende askok galdetu digu ea zergatik ez ginen itzultzen edo kontzertu bat eskaintzen. Gure artean ere beti komentatu izan ditugu gauza horiek. Sekula ez dugu itzultzeko aukera serio hartu, baina, azkeneko bultzada Hatortxu jaialdikoek eman ziguten. Hamargarren edizio honetan gu han egotea nahi zuten. Orduan ikusi genuen momentua orain zela, eta pausua eman dugu.

***Zirikatzen Jarraituz Tour* birarekin itzuliko zarete. Zer ikusiko dute jarraitzaileek kontzertuetan? Zuen kontzertuetan ikuskizun handia eskaini duzue beti. Horrela jarraituko duzue?**

Jendeak Ekonen historiaren laburpen moduko bat aurkituko du. Hiru diskoetako abestiak joko ditugu eta sorpresaren bat edo beste ere egongo da. Erronka bat da guretako eta kontzertuak hobetu nahi ditugu, gainera; jarraitzaileei nahi dutena eman. Eta ikuskizuna, noski, ziurtatuta dago.

**Ekon taldean jende asko ibili zarete. Nortzuk osatuko dute gaur egungo Ekon?**

2003an taldea utzi zuten kideak bueltatuko dira atzera, Ines eta Naiara kenduta. Hala ere, neska abeslari berri bat izango dugu: Neubat taldeko Libe. Itzulera honetan izango gara,beraz, Ioni (koruak), Libe (koruak), Yago (gitarra), Xabi (gitarra), Iñigo (baxua), Heloy (bateria) eta neu (ahotsa).

**"Proiektuak amaiera data dauka; hamar bat kontzertu emango ditugu, baina, denak bereziak"**

**Bira bukatuta, Ekon desagertu egingo da?**

Sekula ezin da ezer ziurtatu. Orain dela sei urte azkeneko kontzertua izango zela esan genuen eta begira non gauden (barre). Ez, baina, proiektu hau amaiera data batekin jaio da, bakoitzak bere proiektuekin jarrai dezan. Gure asmoa da kontzertu gutxi ematea, baina, ematen ditugunak oso bereziak izatea. Maiatzaren 14an Bilboko Kafe antzokian joko dugu eta beste kontzertuak oraindik esan ezin ditugun arren jakin bost kontzertu lotuta ditugula eta beste bost epe laburrean lotuko ditugula.

**Ekonen jarraitzaileei zerbait esan nahi diezu?**

Bai. Maiatza iristeko irrikan gaude eta ilusio handiarekin itzuliko gara taula gainera. Uste dut jarraitzaileei gustatuko zaiela prestatu dugun proiektua.

# Lehiaketako 24 taldeen gaineko iritzia eman digu epaimahaiak

**A.G.** > ARRASATE
Danbakaren berrikuntza nagusiena esparru geografikoa zabaltzea izan da. Horrek talde berri eta desberdin asko ekarri ditu. Are gehiago, Debagoienak berak ere talde berri asko sortzen dihardu. Horregatik, ezuste asko izan dira, gehienak onerako izan direnak. Barietateaz gain, talde on eta interesgarri askorekin gozatu dute Danbakaren jarraitzaileek. Talde bakoitzaren gainean lerro batzuk idatzi ditu epaimahaiak.


**Mery May** > 2008.10.17

Harrituta utzi gintuen hain gazte izan arren, erakutsi zuen dotorezia eta kalitateak. Gainera, ingelesez hain ondo abesteak balio erantsia ematen dio.


**Damudot** > 2008.10.17

Euskal Herrian ohikoa den heavya egiten dute. Badakite zer nahi duten eta ondo egiten dute. Abestien exekuzioa ona izan zen, baina ez zuten agertokia bete.


**The 5 Twisters** > 2008.10.17

Aurreko Danbakatik jauzi itzela egin dute: garagea eta rock-and-rolla dotorezia eta sinesgarritasun handiz egiten dute, eta musikariak asko hobetu dira.


**Ymotek** > 2008.10.17

Abadiñotik etorritako zapalgailua. Metal gogorra egiten dute, oso gogorra, eta eszenaratzea ere halakoa da. Agertokia betetzen ondo baino hobeto dakite.


**Ni_Neu** > 2008.10.31

Kantu onak dira, sentimendu eta melodia batzen dituztenak, barrubarrukoak. Musikari finekin eta teklatuak aberastuta irabazten dute; errodajea da falta zaiena.


**Scam** > 2008.10.31

Iraganeko punk-popetik askoz urrunago joan dira. Abesteko era melodikoari eutsi arren, metal eta emoarekin emaitza biribildu dute, talde trinkoagoa da orain.


**Lord Witch** > 2008.10.31

Ibarrean heavy klasikoa egiten zuenik ez zegoela uste arren, ordezkari finak ditugu hauek. Baladak, punteoak eta bateria tarrapadak tamaina oso egokian.


**Adi Holden** > 2008.10.31

Rocketik indiera, eta indietik noisera ziztu batean; eta kantu borobilak. Intentsitate handiko taldea; guztia eman zuten taula gainean, batez ere abeslariak.


**Los Viernes Al Ron** > 2008.11.14

Gitarra akustikoa, ahotsa eta armonika bakarrik erabilita, kantu apalak, ederrak eskaini zituen. Kantu barrukoak, hurbilekoak, folkaren eta bluesaren artekoak.


**Bitter Honey** > 2008.11.14

Talde hasiberria bada ere, ez dirudi hala denik. Punta-puntako musikariak dira, euren artean ia nabarmendu ezin daitezkeenak. Hard-rocka antzinako gustuarekin.


**Army-Arma** > 2008.11.14

Rocka, hardcorea eta hip-hopa ondo ezkontzen dituzte, eta hitzak gustuz eta umorez idatzita daude. Agertokia betetzen ere badakite, baina ez zuten transmititu.


**Brankan** > 2008.11.14

Kameleoian moduan eskaintza aldatzen joan den taldea. Rock iluna, barrukoa, sentikorra, ondo egina eta kontzesio barikoa, baina ez zuten ikusleen arreta lortu.


**Foxy Boxxi** > 2008.11.28

Talde oso gaztea, baina freskoa. Abeslari-frontwoman aparta dauka eta musikariak txukunak dira. Denborak on egingo die eta ezusteak emango dituzte.


**Igor San Juan** > 2008.11.28

San Juanek pop-rock kantu xamur zein gertukoak egiten ditu. Bere mugak ditu, baina talde txukun batek lagunduta, bere abestiak biribiltzea lortzen dute.


**Norman** > 2008.11.28

Punk-rockari buelta erdi eta gehiago ematen diote, bestelako erritmo eta sonoritateak batuz. Musikari onak dira eta badakite zer gura duten; berritzaileak.


**Hilbete** > 2008.11.28

Melodia eta indarrak biak bat egiten dituzte, metala eta hardcore melodikoa. Abesti onak eta ideiak argi, baina gau horretan ez zuten asmatu.


**Flipin Folk** > 2008.12.12

Ez da ohikoa gure artean folka eta rocka batzen dituzten talderik aurkitzea. Jai girokoa taldea da, dantzarako eta parrandarako aproposa, eta taulak dituzte.


**Rock Privado** > 2008.12.12

Talde dotorea, serioa, eszenaratze zainduarekin. Pop-rocketik abiatuta, blues eta countryraino heltzen dira, soinu amerikarretik oso gertu.


**The Wet Band** > 2008.12.12

Igartzen da musika estilo asko jo izan dituztela. Hard-rockaren eta power-poparen artean daude. Musikari oso onak dira, eta gitarra jotzailea nabarmendu egiten da.


**Turboshit** > 2008.12.12

Amorru handiko punk-rocka egiten dute, ñabardura eta apaindura barikoa. Leku txikiagoetarako aproposagoak dira eta agertokia handi gelditu zitzaien.


**Barua Banda** > 2008.12.19

Euskal musikan sustraitutako pop-rock taldea. Saxoak eta gitarra jotzaileak ukitu berezia ematen diote emaitzari, baina igartzen da kontzertu gutxi dituztela.


**Tuesday Evenings** > 2008.12.19

Power-poparen inguruan oinarritutako emanaldi oso dotorea egin zuten. Badakite zer nahi duten, eta indarra eta kalitatea, biak dituzte barneratuta.


**The Motherfuckers** > 2008.12.19

Oharkabean sortutako talde honek oso emaitza ona eman zuen agertokian. Melodia eta koroak asko zaintzen dituen punk-rocka. Kontuan hartzekoak.


**Revelphone** > 2008.12.19

Indar, jarrera eta freskotasun handia erakutsi zuten eta ezustekoa eman zuten aurkeztutako grabazioarekin alderatuta. Etorkizun ona opa diegu.

Amaia Txintxurreta > Abeslaria

# "Musika eta telebista gertutik ezagutzeko aukera galanta da "



Amaia Txintxurretak eskarmentu handia dauka abesten. JOSETXO ARANTZABAL

ARRITXU BARRUSO > OÑATI

**Amaia Txintxurreta oñatiarrak, urtarrilaren 7an, Cuatro telebistak abian jarritako '*La batalla de los coros*' saioan dihardu. Izenak dioen moduan, hainbat abesbatzek, bakoitzak abeslari ezagun bat zuzendari dutela, euren artean lehiatzen dute abesbatza onena zein den erakusten. Txintxurreta, beste hainbat euskaldunekin batera, Mikel Erentxun abeslari donostiarraren abesbatzako kide da. Lehiaketan orain arte bizitakoak kontatu dizkigu Txintxurretak.**

**Zer moduz joan zen lehenengo saioa?**

Oso urduri geunden gehienok, ez genekielako ondo nola izango zen saioa. Baina, egia esan, dena oso ondo irten zen eta oso gustura geratu ginen egindako lanarekin.

**Nola egingo du aurrera saioak?**

Eguaztenero galak egingo dira. Aurreko astekoa aurkezpen gala bat izan zen, bost abesbatzak ezagutzera emateko. Baina datorren astetik aurrera eguaztenero abesbatza bat kanporatua izango da. Ikusleek erabakiko dute, telefono deiekin eta SMS bidez, zein abesbatzek utziko duen saioa.

**Abesbatza guztiek abeslari famatu bat duzue zuzendari gisa, ezta?**

Bai. Esan bezala bost abesbatza gara. Bost abeslari famatu aukeratu dituzte eta horien hiriburuetako abesbatzak eratu dituzte. Gu Donostiako abesbatza gara eta Mikel Erentxun da gure zuzendaria.

**Eta zer moduz Mikel Erentxunekin?**

Oso ondo. Oso pozik gaude. Oso gertukoa da, denbora guztian gu lasaitzen ibili zen eta aholku asko eman dizkigu. Adibidez, Marta Sanchezekin ikusi genuen lehenengo bera zela eta gero abesbatza. Mikel Erentxunek behin eta berriz esan zuen protagonistak geu ginela. Oso ondo portatu da gurekin.

**"Mikel Erentxun oso gertukoa da, aholku asko eman dizkigu eta oso ondo portatu da gurekin"**

**"Beste abesbatzek oso maila altua erakutsi zuten baina pozik gaude egin genuen lanarekin"**

**Nola ikusi duzue zuen burua beste abesbatzen maila ezagutu ostean?**

Lan ona egin genuen. Gainera aukeratutako abestia ere oso aproposa zen. Gospel estilokoa zen eta gure gaitasunak erakusteko aukera eman zigun. Abesbatzako bakarlariek ere oso ondo jardun zuten. Dena dela, esan behar da oso maila altua dagoela. Madrilgo abesbatza, esaterako, oso ona da. Jendea oso profesionala da. Kontuan eduki behar da horrelako hiriburu handi batean bizitzeak prestatzeko eta ikasteko aukera gehiago eskaintzen dituela.

**Ikasten ari zara eta baita GOITBn lanean ere. Nola iritsiko zara denera?**

Unibertsitatean azterketa garaia da, baina, ezin izan ditut azterketak aurreratu. Beraz, nik ekainean egin beharko ditut guztiak. Niretako ikasketak izan dira betidanik lehenengo gauza, baina, kasu honetan aukeratua izan nintzela esan zidatenean ez nuen bi bider pentsatu. Musika gustatzen zait eta baita telebista ere. Bi mundu horiek gertuagotik ezagutzeko aukera ezin hobea da. Horrelakoak bizitzan behin baino ez dira gertatzen. Nolabait esateko, saio honetara joatea, etorkizunerako apostu bat da niretako. Ea ondo irtetzen den.






Argazkian ezkerretik eskuinera, Ebert Sanchez, Martxelo Arkarazo, Unai Azkarate, Fernando Laskurain eta Mikel Azkargorta.

UXUE ZABALETA

# "Hainbat estiloen fusioarekin abesti propioak egiten ditugu"

Bergarako Mahaster River taldeak 'Nahasterrekan' izeneko diskoa kaleratu zuen abenduan; hamar abesti grabatu dituzte

Hilaren 24an kontzertua egingo dute Bergarako Ziripot tabernan, eta otsailean zuzeneko gehiago egingo dituzte Oñatin eta Arrasaten

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Mikel Azkargortak (baxua), Fernando Laskurainek (12 sokako gitarra) eta Unai Azkaratek (gitarra elektrikoa eta ahotsa) osatzen dute Mahaster River taldea. Kaleratu berri duten diskoaren gainean egin dugu berba eurekin.**

***Nahasterrekan* jarri diozue izena bigarren diskoari. Zergatik aukeratu duzue hori?**

Txikitatik gustatu izan zaigu nahasketak egitea, eta taldearen sorreratik fusioa eta estilo ezberdinetatik edatea dira gure marka garrantzitsuenak. Azalaren kontzeptuarekin ere jolastu nahi izan dugu; udako ekaitz baten ondorioz Mahasterreka kalea erreka bihurtu zen eta gure entsegu lokaleraino ura sartu zen.

**Nolakoa da diskoa?**

Disko honetan jende askoren kolaborazioa izan dugu; besteak beste, Olaia Ramos musikariak ahotsetan lagundu digu; Enrike Txurrukak teklatu eta efektuekin; Txus Alvarezek saxofoia jo du; Domentx Uzin musikariak bibolin doinuak grabatu ditu; Ebert Sanchezek trabeseko flauta jo du; eta Orioko Mikel Arantzabal musikariak ahotsak lantzen lagundu digu. Beraz gure freskotasuna duen arren, disko landuagoa eta osoagoa egiten saiatu gara.

**Gustura zaudete disko berriarekin?**

Gu oso gustura gaude emaitzarekin, baina orain entzuleen iritzia ezagutu beharko dugu.

**Lehenengo diskoa moduan Andoaingo Garate estudioetan grabatu duzue.**

Oraingoan denbora gehiago eman dugu Andoainen, eta bertan geratu ginen lotan. Era berean, musikariekin egindako entsegu orokorrak ere han egin genituen, eta hori luxu bat da guretako. Egia esan, etxean bezala sentiarazi digute. Garate estudioetan asko miresten dugun jendearekin egiten dugu lan eta soinu profesionala lortu dugu.

**Ze ezberdintasun daude bi diskoen artean?**

Asko! Bigarrena landuagoa da. Bestalde, taldeko hiru musikariak hobeto ezagutzen dugu elkar, eta hori antzematen da. Gainera, teklatuen efektuei eta beste instrumentuei genien beldurra gainditu dugula esan dezakegu. *Nahasterreka* diskoaren soinua finkatuagoa da eta bateriarik gabeko abestiak dauzka.

**Taldea ezagutzen ez dutenendako, zelako musika egiten duzue?**

Bateriarik gabeko hirukote elektroakustikoa gara, eta formazioa bera nahiko esanguratsua dela uste dugu. Estilo aldetik ez diogu gure buruari mugarik jartzen eta gustatzen zaigun guztia nahasten dugu. Kantu abestuak zein instrumentalak jotzen ditugu, eta propioak zein bertsioak.

**Diskoa salgai jarri duzue dagoeneko; baina ibarreko zein tokitan?**

Hainbat tokitan jarri dugu. Bergaran, Pol-Pol, Etxagi, Nahikari, Ziripot eta Agorrosin tabernetan eta Laino Skate dendan; Oñatiko Aker eta Ona tabernetan; Eskoriatzako Inkernun; Arrasateko Gure Lekun; eta Aretxabaletako Ezkutun.

**Disko berriarekin batera, fanzine bat argitaratu duzue.**

Taldea sortu zenetik gaur arte prentsa idatzian argitaratu dituzten albisteak jaso ditugu.

**Webgune berria ere jarri duzue sarean: *www.mahasterriver.com*.**

Sarean hainbat espazio genituen eta guztiak kudeatzea lan nekeza zenez, informazioa guztia webgune batean biltzea erabaki genuen. Taldeari buruzko informazio guztia eta on-line denda wegune berean aurki dezakete interesatuek.




## Bateriarik gabeko hamar abesti

Ohikoa ez den arren Bergarako taldeak ez du bateriarik erabili diskoan. Horren truke, oso ohikoak ez diren instrumentuak erabili dituzte; besteak beste, bibolina eta zeharkako txirula. Hamar kantu grabatu dituzte: *Ideia onak Nahasterrekan*; *Joana*; *Beating a dead horse*; *Apache*, *Orratzen dantzen menpean*; *Rollo folk*; *Lana*; *I want you to hear me*; *Behin bi, behi bi*; eta *Old fined*.

Hilaren 24an, zapatua, Bergarako Ziripot tabernan kontzertua egingo dute.

Mireia Bikuña

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Etxebizitza saldu edo errentan ematen da Ibargoian. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Deitu 620-59 86 55 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Zerrajeran, permutarako aukerarekin. Bestela, errentan ematen da, erosteko aukerarekin. 110 metro koadro. Lau logela.Garajea aukeran. Deitu 650 10 02 10 edo 943 79 96 63 telefono zenbakietara.

**Aretxabaleta.** . 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Deitu 659-64 67 38 telefonora.

**Beasain.** 55 metro koadroko etxebizitza guztiz eraberritua. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Eguzkitsua, bi balkoirekin. Trastelekua. Deitu 615-73 59 18 telefonora.

**Bilbo.** Alde Zaharreko metrotik 7 minutura, ingurunelasaian. Guztiz berriztatuta. Bizitzera sartzeko modukoa. 74 m2. 4 logela, berogailu indibiduala (gasa), igogailua, trastelekua eta garaje plaza 1 (alokairuan). Deitu 94-415 67 49 telefonora.

**Bilbo.** Bilbo. Salgai, Santutxun, Basarrateko metro alboan 3 logelako etxebizitza igogailuarekin. Egongela, komuna, sukaldea jantzita, berogailuak gas naturalarekin eta despentsa. 37 milioi, 222.375 euro. Deitu 688-63 36 21 zenbakira.

**Ispaster.** Ispaster. Baserria salgai 15 hektareatako lursailarekin. Bi etxebizitza egiteko aukera. 80 milioi, 480.810 euro. Deitu 688-63 36 21 telefono zenbakira.

**Lakuntza.** Lakuntzan 36 metro karratuko lokal komertziala salgai. Bizitza bihurtzeko aukera. Ermiñoeta kalean. Interesatuek hots egin 689-23 27 08 telefonora.

**Lekeitio.** Pisua salgai Lekeition. Bi logela, ezkaratza, egongela, komuna eta sarreraduna. Berriztatuta eta jantzita. Deitu 688-69 63 36 telefonora.

**Lekeitio.** Aukera paregabea. Txaleta salgai. Leku eder eta lasaian, lur eremua fruitondoekin, prezio interesgarria. 120 milioi. 721.215 euro. Tel. 688-63 36 21.

**Lekeitio.** Aukera ezin hobea. Lehen solairua, eguzkitsua. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi eta ganbararekin. 30 milioi, 180.304 euro. Tel. 688-63 36 21.

**Mutriku.** Salgai Erdiko kalean, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. 140.000 euro. Tel. 680-53 72 89.

**Mutriku.** Duplexa salgai Erdiko kalean, 5 gela, egongela, sukaldea, 2 komun eta despentsa. 210.000 euro. Tel. 680-53 72 98.

**Oñati** . 90 metro koadroko etxebizitza salgai Bidebarrietan. Hiru logela, bi bainugela, ganbara (etxearekin bat eginda) eta garajea. Deitu 656-79 88 12 telefono zenbakira.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Eraikuntza berria. 80 metro koadro eta 17 metro koadroko garaje itxiarekin. Prezio interesgarria. 210.350 euro guztira. 943 78 07 15

### 102. EROSI

**Oñati.** Bikote batek 250.000 euro baino gehiago balio ez duen etxe bat erosiko luke. 659-25 72 84.

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. SALDU | 301. SALDU | 501. JASO | 701. SALDU | 901. AGURRAK |
| 102. EROSI | 302. EROSI | 502. EMAN | 702. EROSI | 902. HARREMANAK |
| 103. ERRENTAN EMAN | 303. ERRENTAN EMAN | 503. BESTELAKOAK | 703. EMAN | 903. DEIAK |
| 104. ERRENTAN HARTU | 304. ERRENTAN HARTU | | 704. BESTELAKOAK | 904. BESTELAKOAK |
| 105. ETXEAK OSATU | 305. BESTELAKOAK | | | |
| 106. BESTELAKOAK | | | | |
| **2. GARAJEAK** | **4. LANA** | **6. MOTORRA** | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| 201. SALDU | 401. ESKAINTZAK | 601. SALDU | 801. SALDU | |
| 202. EROSI | 402. ESKAERAK | 602. EROSI | 802. EROSI | |
| 203. ERRENTAN EMAN | 403. BESTELAKOAK | 603. ALOKATU | 803. EMAN | |
| 204. ERRENTAN HARTU | | 603. KONPONDU | 804. HARTU | |
| 205. BESTELAKOAK | | 604. BESTELAKOAK | 805. TRUKATU | |
| | | | 806. GALDU | |
| | | | 807. AURKITU | |
| | | | 808. BESTELAKOAK | |

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Hiru logela eta egongela. Berogailua. Bikote edo ikasleentzat. 653 72 55 85 edo 620 31 33 72.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Ferrerias kalean. Gela bat, sukaldea, egongela eta komuna. 619 34 88 52.

**Arrasate.** Logela bateko apartamentua erdigunean. 500 euro hilean. Bulego ordutegian deitu. 943 77 13 02

**Beasain.** Etxebizitza alokatzen da Beasainen. Foru kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta balkoia. Deitu 685-78 45 52 telefono zenbakira.

**Jaca.** 3 logelako etxebizitza alokatzen dut. Asteka edo hilabeteka. 635-75 02 93.

**Oñati** . 90 metro koadroko etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebide kalean. Santa Marina plaza ondoan. Hiru logela, bi bainugela, garajea eta trastelekua. Deitu 652-71 74 33 zenbakira.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Olakuan. Guztiz berritua eta jantzia. Garajea aukeran. 665-72 87 89 edo 657-72 25 70.

**Zaragoza.** Unibertsitatetik gertu. Lau logela, egongela, bi komun, garajea eta aire egokitua daukan etxebizitza alokatzen dut. 659 58 56 83

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Baserria errentan hartuko nuke Bergaran edo inguruan. Deitu 665 70 21 92 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Deitu 699 66 33 63 edo 689 20 13 17 telefono zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 658 28 90 86 zenbakira.

**Debagoiena.** Etxea errentan hartu nahi nuke, pertsona batentzako. Deitu 653 70 84 09 telefonora.

**Andoain.** Bikote arduratsuak pisua alokatuko luke Andoain edo inguruetan. Deitu 686-06 72 94 telefonora eta Maiterengatik galdetu.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza txiki bat edo apartamentu bat errentan hartuko nuke Aretxabaletan. Deitu 619-46 43 66 zenbakira.

**Arrasate.** Bikote arduratsu eta garbiak etxebizitza txikia hartuko luke errentan. Deitu 666-21 88 95 edo 943-77 07 01 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Bi edo hiru logela. Presazkoa. Deitu 636-25 56 68 telefonora.

**Arrasate.** Kooperatibetan lanean dabilen mutil bat beste langile baten bila dabil etxea konpartitzeko. Deitu 628-08 75 89 zenbakira.

**Idiazabal.** Bikote gazte batek Idiazabalen pisua alokairuan hartuko luke. Deitu 615-75 34 11 telefonora.

**Irakasle.** Irakasle batek logela bat behar du aurtengo ikasturterako. Deitu 652-73 55 54 telefonora.

**Lakuntza.** Lakuntza inguruan pisu bat alokatu nahi nuke. Deitu 669-56 36 21 telefono zenbakira.

**Zarautz.** Arrasateko emakume arduratsu bat naiz eta Zarautzen alokatu nahi nuke logela bateko ala biko etxebizitza bat urte osorako. Interesatuak: *udalatx1117@gmail.com*. (Gehienez 700 € etxeko gastuak barne).

### 105. ETXEAK OSATU

**Altsasu.** Interesatuta egonez gero 608-57 97 70 telefonora hots egin.

**Altsasu.** Logela alokatu edo pisua konpartitzeko prest nago Altsasun. Deitu, mesedez, 690-70 61 72 telefonora.

**Aretxabaleta.** Logela errentan ematen da, erosoa eta ekonomikoa. 639-28 53 50.

**Bilbo.** Lan kontuegatik Bilbon astea pasatzeko logela bat behar dut. Deitu 653-74 32 35 telefonora.

**Eskoriatza.** Pertsona bat behar da etxe bat osatzeko. Deitu 690-15 95 06 telefonora.

**Getaria.** Herri erdian erosotasun guztiekin eta bi neska euskaldunekin etxea konpartitzeko aukera. Gastuak aparte. Interesatuak *aupairu@hotmail.com* helbidera idatzi beraien burua aurkeztuz.

**Oñati.** Neska langile batek pertsona bat behar du pisua osatzeko. 2 logela ditu etxeak, herri erdian dago eta interesatua langilea izan dadila nahiago dut. Otsaila-martxoa 2009tik aurrera sartzeko aukera. Deitu 655-71 33 66 telefonora.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALGAI

**Errenteria-Orereta.** Garaje itxia salgai Errenteria-Oreretako Tulle kalean. Informazio gehiago nahi dutenek 615 726 600 telefonora deitu.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Ormaiztegi.** Auto batentzako garajea alokatzen da Ormaiztegin. Informazio gehiago nahi dutenek 609-41 18 11 telefonora deitu.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Industria-nabea alokatzen da.** Industria-nabea alokatzen da Altsasuko Ondarria poligonoan. 140 metro karratu eta 2 sarbiderekin. Informazio gehiago nahi dutenek 948-56 32 90 edo 659-62 32 71 telefonoetara deitu.

**305. BESTELAKOAK**

**Txabola.** Kaixo, Azpeiti inguruan txabola edo borda bat alokatu nahi nuke animaliak jartzeko. Diruaz aparte beste tratu baterako ere prest egongo nintzateke. *artxulo@hotmail.com* e edo 663 90 67 93 telefono zenbakira.

## 4/ LANA

**401. ESKAINTZAK**

**Altsasu.** Pertsona bat behar da DBH 2. mailako neska bati eskola partikularrak emateko. Informazio gehiago nahi dutenek deitu 650- 47 17 13 telefonora.

**Aramaio.** Pertsona arduratsu eta euskalduna behar da umeak zaintzeko. 685-73 58 55

**Azpeitia.** 3 urteko umea zaintzeko pertsona bat behar dut. Interesa duzuenok, deitu telefono honetara: 665-66 34 84.

**Azpeitia.** Neska bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, goizez edo arratsaldez. Tel.: 687-41 59 43.

**402. ESKAERAK**

**Arrasate.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Tituludun ile apaintzailea gertu etxean bertan orrazteko. Deitu 650-59 93 91 telefonora.

**Arrasate.** Esperientzia handiko neska sukaldean lan egiteko gertu. Baita garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko ere. Deitu 639-93 25 04 telefonora eta Nacirarengatik galdetu.

**Arrasate.** Metalurgia, sukalde laguntzaile, zerbitzari edo edozein motatako lanak egingo nituzke. Jose Ingo. Deitu 639-93 25 04 edo 659-32 69 92 telefono zenbakietara.

**Arrasate - Bergara.** Etxeko lanak egiten lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Deitu 620-54 60 59 telefonora.

**Azpeitia.** Ingeniari teknikoa LH eta DBH mailako eskola partikularrak emateko prest. Informazio gehiagorako deitu 637 11 39 09 telefono zenbakira.

**Bergara.** Emakume gaztea pertsona adinekoak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Paperekin eta esperientziarekin. Deitu 686-99 59 41 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Deitu 634-84 11 72 telefonora.

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu garbiketa lanak egiteko edo ume zein nagusiak zaintzeko. Segituan hasteko prest. Deitu 667- 28 83 21 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila gertu igeltsero lanak egiteko. Deitu 667-28 83 21 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko prest nago. 680-67 69 88

**Debagoiena.** Debagoiena edo Debabarrena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten, astelehenetik ostiralera. Deitu 628-40 58 27 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke gauetan. Esperientzia eta geriatria ikastaroa dauzkat. Erreferentziekin. 618-93 59 29.

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. 663-51 44 94.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumeak umeak edo nagusiak zainduko lituzke. Baita garbiketa lanak egin ere. Deitu 680-30 24 64 telefonora.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu garbiketa, sukalde laguntzaile edo bestelako lanetarako. Deitu 638-61 85 10 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Basogintza lanak egingo nituzke: inausketa, garbiketa eta abar. Deitu 659-05 97 21 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu 686-45 72 56 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izanda Deitu 659-57 93 89 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan lo eginda edo ez. Deitu 659-57 93 89 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka, egun osoz eta etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Deitu 688-68 13 63 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. 14:00etatik aurrera. Deitu 618-12 07 44 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Gidabaimena duen mutila lanerako gertu: banaketak, garbitasuna edo tabernetan. Deitu 697-66 79 37 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat etxeko lanetan. Deitu 686-52 15 98 telefonora.

**Debagoiena.** Ordenagailu eta periferikoak etxean konpontzeko prest. Telefonoz laguntza emateko eta urrutiko kontrola hartzeko prest. Edozein dendatan baino merkeago. Tratu pertsonala. Deitu 693-34 58 69 telefonora.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea peoi moduan lan egiteko gertu. Deitu 626-17 60 57 zenbakira.

**Debagoiena.** 23 urteko mutila gertu garbiketa, sukaldaritza edo bestelako lanetarako. Nahiago Arrasaten bada. Deitu 943-05 79 13 telefono zenbakira.

**Debagoiena. .** Emakumea gertu garbiketa lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. Deitu 697-93 73 32 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Deitu 667-28 83 21 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume boliviarra, legezko paperak dituena, nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. Deitu 636-91 93 81 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, garbitasun lanak egin eta nagusiak zaintzen lan egiteko. Ile apaintzaile laguntzaile ere bai. Legezko paperak ditut. Deitu 666-21 88 95 edo 943-77 07 01 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak zaintzeko eta zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 661-06 07 23 zenbakira.

**Elgoibar.** Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Goizez eta arratsaldez. Deitu 943-74 32 51 telefonora

**Goierri.** Lan bila nabilen neska arduratsua naiz. Garbitzen, umeak edo adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Deitu 628-48 72 75 telefonora.

**Lasarte-Oria.** Klase partikularrak ematen ditut, matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia. Deitu 646-71 76 76 telefono zenbakira.

**Lasarte-Oria.** Neska bat eskaintzen da haurrak, adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako. Interna moduan edo orduka. Deitu 620-03 68 88 telefono zenbakira.

**Lasarte-Oria.** Neska arduratsu eta lanerako gogoarekin eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako eta haurrak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. Deitu 690-30 46 83 telefono zenbakira.

**Pasaia.** Autonomoa eskaintzen da astean 2 edo3 egunerako esperientzia handia lorazaintzan kamioi kartetarekin eta furgotarekin aukeran. Informazio gehiago- *lorazain@ozu.es* e-postan edo 679-60 04 44 telefono zenbakian.

**Tolosa.** Bigi garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Deitu 638-94 46 04 edo 695-70 82 71 telefono zenbakira eta Irenerengatik galdetu.

**Tolosaldea.** Neska gazte euskalduna lanerako prest. Goi mailako delineatzaile titulua daukat, baina edozertan lan egingo nuke. Deitu 627-65 34 33 telefono zenbakira.

## 5/ IRAKASKUNTZA

**501. JASO**

**Arrasate.** DBHko lehenengo mailarako eskola partikularrak emateko gertu dagoen norbait behar da. 669 61 52 99.

**Goierri.** Ingeleseko klase partikularrak emateko pertsona behar da. Deitu 679-55 65 86 telefono zenbakira.

**502. EMAN**

**Bergara.** Kimika lizentziatu batek fisika, kimika, naturzientziak, marrazketa tekniko, geologia eta teknologiako klase partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. Deitu 648-06 79 85 telefono zenbakira.

**Bergara.** Aranerrekan. Ingeles eskolak ematen ditut. Azterketak prestatzeko edo eskola laguntzarako. Deitu 616 12 56 29 telefonora.

**Lasarte-Oria.** Matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia. Deitu 646-71 76 76 telefono zenbakira.

**Leioa.** Lehen hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak emateko prest nago. Ostiral arratsaldetan 15:00-18:00 bitartean. Ordua 10€. Deitu 629-86 64 03 telefono zenbakira.

**Soraluze - Eibar.** Neska lizentziatua naiz eta DBH edo batxilergo mailako euskara, geografia edo historiako klase partikularrak ematea gustatuko litzaidake Soralze, Eibar edo inguruetan arratsa dez. Deitu 628-23 34 64 telefono zenbakira.

## 6/ MOTORRA

**601. SALGAI**

**Motoarentzat.** 2002-03-04 eta 2005 urteko Yamaha WR 450-F motoentzako Pro Circuit TI 4 markako eskape osoa eta pieza asko. Dena 600 eurotan. Interesatuak deitu 667-41 88 75 telefono zenbakira.

**Motorra salgai.** Suzuki SV 650 S motorra salgai. 3 urtekoa. 15.000 km eta gurpil berriekin. Deitu 675-71 47 12 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

**701. SALDU**

**Arrasaten kanario horiak salgai.** Kanarioak salgai. Horiak. Isabela eta agata arrazakoak. Mikel. Deitu 635-75 54 53 telefonora.

**Salgai txakurkume ederrak.** Salgai txakurkume ederrak. Artzaintza lanerako edo konpainiarako. Moduzko prezioan. Deitu 652-71 95 24 zenbakira.

**703. EMAN**

**Katakumea.** Sei hilabeteko baserriko katakume emea opari. Deitu 943 76 21 71 telefono zenbakira.

**Katakumeak** oparitzen ditut. Zurixkak eta begi urdinekin. Deitu 943 78 05 13 telefonora.

**Katuak** opari egiten ditut. Zurixkak eta begi urdindunak. Deitu 943 78 23 91 telefono zenbakira.

**Txakurkumea opari.** Txakurkumea oparitzen da. Euskal artzain txakurra. Deitu 626-11 38 69 telefono zenbakira.

**704. BESTELAKOAK**

**Setter** arrazako txakur emea galdu zen azaroaren 16an Bolibar inguruan. 12 urte ditu, Zuri izenekoa, eta plaka dauka lepokoan. Guretzat balio sentimental haundia dauka. Deitu 943 79 96 55 telefono zenbakira.

## 8/ DENETARIK

**801. SALDU**

**Baserritar arropa salgai.** Baserritar alkandora eta abarkak salgai. Bost urtetik aurrerako umeentzat. Galtzerdiak opari. Deitu 656-78 64 64 telefono zenbakira.

**Bigarren eskuko bizikleta.** Bigarren eskuko bizikleta salgai.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 $m^2$. Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Artekale 62 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 150. 253 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Zubiaurre, 82 $m^2$ + 42 $m^2$, ondo.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
